

**Herririk Herri | 6**

ELAK eta LABek martxoaren 29ko greban parte hartzera deitu dute

**Berbaz | 8**

Bihar aurkeztuko dute Elorrion Lajwad, Sahararen aldeko elkarteak

**Kirola | 15**

Aspe eta Asegarceren laguntza handiagoa eskatu dute klubek

**Ordu aldaketa**

Zapatatik domekara, 02:00etan 03:00ak izango dira



Zalao Fuertes

KULTURA | 10-11

## Zilar Asteak duela 75 urteko bonbardaketa gogoratuko du

Durangaldeko hainbat ikastetxe, elkarte eta eragilek bat egin dute Zilar Asterako

Martxoaren 31n bonbardaketaren ibilaldi kulturala abiatuko dute Kurutzia gatik

**DURANGO | 2**

**Tabernen ordutegia ez zabaltzea eskatu dute auzo elkarteek**

Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Durangoko alde zaharretako auzo elkarteek ostalaritzako ordutegiari buruzko lege dekretua gogor kritikatu dute.

**Elorrio | 3**

Argiñetako ingurua 2015 urterako berreskuratu gura dute

**Abadiño | 7**

Atxarte berreskuratzeko proiektuaren kontra dago Bildu

**Durango | 2**

Artxibo historikoa udalaren webgunean partekatu dute

**Zaldibar | 4**

Eskolako lanak atzeratzeak eztabaida sortu du udalaren

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones



REGISTRADO FOR ENAE



Hosotzentzako haize-makina



Zulagailua



Lorezaintzarako traktorea



Gasolinazko motordun ailtzura

Eitua industrigunea  
71C  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
94 682 45 50  
www.alkimax.com  
alkimax@alkimax.net



# HERRIRIK HERRI >

f **Anboto Komunikabideak**  
@anboto**DURANGO**

## Tabernen ordutegi berrien kontra batu dira auzokideak

Apirilaren 3an Legebiltzarrera joko dute hainbat auzokide elkartet, tartean Durangoko DAZek

**T**abernak ordu gehiagoz zabalik egon ahal izateko lege dekretua, euren iritzia kontuan hartu barikegin izana gaitzetsi dute hainbat auzo elkartet. Durangon egindako batzarraren ondoren adierazi dute apirilaren 3an Eusko Legebiltzarrera joango direla euren iritzia azaltzera.

Legebiltzarrera eroango duten testua aurkezteko agerraldian, Bilbo, Durango, Donostia eta Gasteiz-

**Lege dekretua auzo elkarten iritzia kontuan hartu barikegin izana salatu dute**

ko alde zaharretako elkarteak, Zarataren Kontrako Elkartea eta Bilboko Auzo Elkarten Federazioa egon dira.

Jaurilaritzari eta Legebiltzarrari lege dekretua berriz aztertu eta aldatzea eskatuko diete elkar-

teetako kideek. Udalekin ere hasi dira hartuemanetan, dekretua atzera botako ez balitz taberna bakoitzaren kasua aztertuko.

Javier Rodriguez Bilboko Auzo Elkarten Federazioko presidentek aldarrikatu duenez, "auzokideen atsedena eskubideak lehentasuna dauka ostalarien interes ekonomikoen aurrean".

Euren eskakizunen artean, udaltzainek ordutegiak kontrolatzeko beharra egitea eta araudiz kanpoko zaratak ekiditeko intsonorizazioa ziurtatzea daude, horrela taberne eragindako zaraten saturazioa kontrolatzeko.

**"Ez du krisia konponduko"** DAZeko Agurtzane Idigorasen iritziz, lege dekretuak ez du ostalari-zako krisia konpontzen lagunduko: "Kontsumitzeko dirurik ez badaukagu, ez dugu gehiago kontsumituko taberna ordu gehiagoz zabalik egonda ere". ■ A. Ugalde.



Elkarteetako kideek aurrerantzean bat eginda jokatzeko asmoa agertu dute.

## "Zarata eta iskanbilazko ordu bete gehiago edukiko dugu"

Durangoko Alde Zaharra (DAZ) elkarteetako kideen berbetan, "lege dekretuagaz lortuko den gauza bakarra auzokideen atsedena eragozten duten ekintzak ordu bete luze izango da; zarata, txisa, bandalismoa...". Auzokideen elkarteak gaia Hirigintza

Batzordean lantzeko eskatu du, eta udalaren erantzunaren zain daudela adierazi dute.

DAZeko Jose Mari Arrillagak gogoratu duenez, 2008an Agenda 21eko ekintzen artean Zarataren Mapa osatu zuten: "Orduan frogatu zen guk esaten genuen

leketan zaratak dezibelioen muga pasatzen zuela". Azterketa horren ondoren, baina, "ez da ezer egin".

Momentu honetan dauden arauak ez direla betetzen salatu dute DAZeko kideek. "Udaltzainek, esaterako, gaueko jarduna gehiago kontrolatu beharko luke", adierazi du Agurtzane Idigorasek, "baina eurak teknikari hutsak dira; erabakiak politikarien esku daude". ■ A.U.

## Publizitate gastua arautzea eskatu dio oposizioak EAJri

Oposizio alderdi guztiek bat egin dute kopuruak zehaztu eta banaketa irizpideak ezartzeko eskaeran

Aralar, Bildu, PSE eta PP alderdiek idatzi amankomun baten bidez jakinarazi dutenez, Ogasun eta Barne erregimen batzordea deitzeko eskatu diote Aitziber Irigoras alkateari (EAJ). Batzorde horretan udalak publizitate eta propaganda kontzeptuengatik gastatzen duen diru kopurua zehaztea gura dute. Horregaz batera, gastu hori egiterakoan irizpideak ezartzea beharrezko ikusten dute. Era

**Ogasun eta Barne erregimen batzordea deitzeko eskatu diote alkateari**

**Azken urteetan gastatutako dirua non gastatu den alderdi guztiei helaraztea eskatu dute**

berean, udal erakunde autonomoetan eta enpresa publikoetan administrazio kontseilua deitzeko gura dute, helburu bereberekin: publizitate ekintzetara bideratutako diru kopurua zehaztea eta hemendik aurrerako irizpideak adostea.

Eskatutako eztabaidak ahalbidetzeko, "azken hiru urteetan propaganda eta publizitatean gastatutako diru kopurua zer enpresa edo komunikabidetan gastatu den eta zer nolako irizpideak erabili diren zehaztea eta talde politiko guztiei helaraztea", eskatu diote alkateari.

Ogasun eta Barne erregimeneko batzordea deitzeko Toki Erakunde Antolaketa eta Funtzionamenduko dekretu bat eta Toki Araubideko Oinarriak ezartzen dituen lege bat baliatu ditu udaleko oposizioak. ■ J.D.

## Webgunean ikusgai dago udalaren artxibo historikoa

Durangoko artxiboan kontserbatu den lehen dokumentua 1405eko akta bat da; Erdi Aroko letra mota korapilotsuekin dago idatzita. Ia sei urteko digitalizazio beharren ostean, sarean ipini dute: [www.durango-udala.net/artxiboa](http://www.durango-udala.net/artxiboa) helbidean.

Dokumentu batzuk nahiko egoera eskasean egon dira, eta horiek kontserbatu eta hedatzeko premia zegoela nabarmendu du Aitziber Irigorasek: "Dokumentuak ukitu barik kontsultatzea euren kontserbaziorako ona da, eta internetez edonoren eskura ipini gura genituen".

Aktak, paper sortak eta kontu liburuetak zatiak kontsultatu daitezke, bilaketa eginda, edo urte urteko PDFak kontsultatuta. Aldizkariak, jaietako programak eta argazkiak digitalizatzeko asmoa daukate.

Artxibo historikoa museoa egon izan da. Lliburutegiko sotoan dago orain, eta ikertzaileek ikusi ahaliko dute fisikoki, "ezinbestekoa bada". ■ A.U.

## Gazte Burdela aldarrikapen jaia Gaztehgam-en eskutik

"Norma denak hautsiko ditugu!" lemapean ekitaldi sorta antolatu dute biharko, Landakon

Kalera irten, eta sexu askatasunaren aldeko jaia antolatu du Gaztehgam mugimendua: Gazte Burdela. Bihar arratsaldetik aurrera Landako Gunean egingo da jai hori lehenengo, *Norma denak hautsiko ditugu!* lemapean.

Gazte Burdelak 16:00etan zabalduko ditu ateak eta *Sistema Zikindu* izenburupean, erakusketak, material txokoa eta *Pornoterrorismo* liburuaren aurkezpena eta tailerra egongo dira. 18:00etan manifestazioa hasiko dute eta amaieran ekitaldi politikoa edukiko dute. 20:00etan kontzertuak hasiko dira Hesian eta Gose taldeekin.

"Gaur egungo sistema heteropatriarkalari era zirikatzaile baten aurre egiteko" antolatu dute Gazte Burdela. Gazehgameko kide Markel Ganboak azaldu duenez, "sistemari buelta eman behar

diogula uste dugu, ezin garela konformatu norma batzuekin; hierarkiak eta ghettoak sortzen dituen sistema delako, eta baten bati kalte egiten dion sistema, ezin da ona izan".

**EHGAMen urteurrena**

Gazte Burdelean, bide batez, EHGAMen 35. urteurrena ospatuko dute. Sexu askapenaren aldeko elkarte Durangon sortu zelako erabaki dute lehen Gazte Burdela bertan egitea. Ganboak azaldu duenez, "35 urte hauetan aurreratu egin dugu baina oraindik ere asko geratzen da genero bako sistema bat sortzeko".

Elkartea Durangaldean ezagutaraztea ere bada zapatuko jaiaren helburuetako bat: "Badakigu ezarritako norme aurre egiteak askotan beldurra ematen duela, eta mugitzeko deia egin gura dugu". ■ A.U.



ELORRIO

# 2015erako berreskuratu gura dute Argiñeta

Udalak eta Aldundiak hitzarmena sinatu dute ingurunearen ikerketa proiektuari ekiteko

**A**rgiñetako ikerketa proiektuak argia ikusi du azkenean. Hiru ataletan banatuta garatuko dute azterketa arkeologikoa, 2015erako berreskuratu eta herritarrei zabaltzeko asmoz. Ana Otadui alkateak, Josune Ariztondo Kultura diputatuak eta Andoni Iturbe Kultur Ondarearen

zerbitzuburuak eman dituzte azalpenak. 2010ean, baselizaren iparraldean gizakien antzinako kokaleku baten aztarnak aurkitu zituzten, EHUKo talde batek egindako zundaketetan: zutoin zuloak, mozketak harrietan eta egurrezko erakuntza zaharren arrastoak. Baselizaren hegoaldean, VIII. eta XII. mendeen arteko bost hilobi estalki monolitiko aurkitu zituzten, eta harlauzazko hilobi bat.

Honako helburu teknikoak ditu egitasmoak: Goi Erdi Aroko herrixkaren eraikuntza historia zehaztea, biztanleen demografia

**Baselizaren iparraldean gizakien antzinako kokaleku baten aztarnak aurkitu dituzte**



Ana Otadui alkatea eta Josune Ariztondo Kultura diputatua, aurkezpenean.

edota elikatze ohiturak aztertzea, komunitatearen ekoizpen estrategiak ezagutzea, okupazioaren lehenaldiak aztertzea eta informazioa eskuratzea multzo arkeologikoa berreskuratzeko.

Ingurunea zaintzeko, eragin gutxiko teknikak erabiliko dituz-

**Baseliza barruan eta atarian ez dute lanik garatuko, zoladura historikoei eusteko**

tela diote. Gainera, baseliza barruan eta atarian ez dute lanik garatuko, lurreko zoladura historikoei eustea "lehentasunezkoa" delako.

2014an lanak amaitu eta 2015ean erabakiko dute azalpen guñeak eta jesarlekuak zelan ezarri, besteak beste. ■ M. Onaindia

# Terrazen ordenantza onartuta, ostalariekin konpartitu gura dute

Orduategia 09:00etatik 23:00etara mugatu dute, eta estetika zaintzeko irizpideak ere jaso dituzte

Kalean terrazak egokitu ahal izateko arauak onartu dituzte Elorrioko Udalean. Tabernei zuzendutako arautegia da; ikuskizun aretoek, dantzalekuek, txokoek, jolaslekuek eta gazte-lokalek ezin dute terrazarik egokitu euren eraikinen kanpoaldean.

gainera, berogailuak ezingo dira ipini hormari atxikita.

Bestalde, estetika bateratzeko irizpideak ere idatzi dituzte: eguzkitik babesteko oihaletan, granatea erabiliko da, udal-seinaleen kolorea; aulkiak eta mahaiak egur edo zuntzekoak izango dira, metalezkoa egitura baino ezingo dute izan.

**Udal-seinaleen granatea erabiliko da eguzkitik babesteko oihaletan**

**Iritzia jaso guran**

Orain, ostalarien iritzia jasotzeko batzarra egin gura du orain udalak, gobernu taldetik azaldu dutenez. Bilduren ustez, iritzi hori ordenantza baino lehen batu behar zen, ordea. EAJK eta PPK beharrezko ikusi dute ordenantza ahalik eta arinen onartzea, prozesuari ekin eta udarako prest egoteko. ■ M.O.

Neurrien artean, orduategia goizeko 09:00etatik gaueko 23:00etara mugatu dute. Oholtzak, musika ekipoak eta jakiak saltzeko makinak debekatu egin dituzte. Alde Zaharreko terrazetan,

# Saneamendu sarea aztertuko dute hamar eremutan

Martxoan hasita, saneamendu sarea zelan dagoen ikusteko inbentarioa egingo dute Elorrioren. Hiru fasetan banatuko dute lana, hilabete biren buruan amaituta edukitzeko. Udal ordezkariak azaldu dutenez, gero hobekuntza egingo dituzte instalazioetan, eta azterketan oinarrituko dira jakiteko zeintzuk diren konponketa premia handiena daukaten zatiak.

**39 hektareako zonaldea**

Guztira, 39 hektareako zonaldea da aztertuko dutena: Argiñeta etorbidea, Buzkantz kalea, Nizeto Urkizu kalea, Lourdes etorbidea, Anduexeta kalea, Padura kalea, Ibaizabal kalea, Ibaiondo kalea, Juan Ariño kalea eta Zenita auzoan egingo dute inbentarioa. Informatu dutenez, udalean 9.775 euroko aurrekontua zehaztu dute behar hauek aurrera ateratzeko. ■ M.O.

OTXANDIO

# Oskar Matute krisiari buruz ariko da gaurko hitzaldian

Alternatiba alderdiko Oskar Matutek eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Joseba Garmendiak krisiaren gaineko hitzaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan, Otxandio kultur etxean. Krisiaren

nondik norakoak azaltzeagaz batera, lan erreformak eragingo dituen aldaketan gaineko xehetasunak ere izango dituzte berba-gai Matutek eta Garmendiak: kaleratzeak noiz eta nola eman daitezkeen, soldatetan zelan eragin dezakeen, horren aurrean langileek zer irtenbide izan ditzaketen eta abar.

Gaur egungo egoera aztertu ondoren, etorkizunari begira dauzkeen alternatiba ekonomikoak ere aipatuko dituzte. ■ J.D.

BERRIZ

# Udaleko hainbat tramite internetez ere egin ahalko dira

"Sekulako abantaila", Orlan Isoird alkatearen ustez, batez ere auzoetan bizi direnentzat. Berriztarrek udaleko hainbat tramite eta izaipide internet bidez egin ahal izan-

go dute hemendik aurrera: eroldako alta zein bajakudeatu, ziurtagiriak atera, datu aldaketak egin edota hirigintzari buruzko informazioa lortu ahalko dute udaleko webgunetik. Biscaytik proiektuaren baitan, lehenengo fasea da zabaldu dutena.

Bilduk, ordea, prezioa kritikatu du. Dioenez, sistema ez da software edo programa librekoa, eta ondorioz garestia da. Geroko proiektuetan librearen alde konprometitu da alkatea. ■ M.O.

**Hamaika**  
ikusteko, bizitzeko




LTD/Euskaltel bidez



Ordenagailuan



Ipad/Tabletean



Mugikorrean

Nazioa eskura

www.hamaika.tv



**ATXONDO**

## Kale argi bi gehiago apurtu dituzte, bi hauek eskola inguruan

Asteburuan apurtutako biekin, guztira zazpi dira hilabetean ezezagun batzuek herrian apurtu dituzten kale argiak. Atxondoko alkateorde Juanjo Norak kezkatuta daudela onartu du: "Nik dakidala aurretik ez delako antzerakorik gertatu".

Era berean, herritarrei dei egin die horrelako "ekintza bandalikorik" ikusiz gero Ertzaintzari edo udal arduradunei abisua emateko. Izan ere, kale argi horiek etxebizitzetatik hamar bat metro-ra daude, oso gertu, "baina oraingoz inork ez digu jakinarazi ezer entzun edo ikusi zuenik".

Aurreko bostak elizaren eta eskolen artekoak izan baziren, oraingoak, eskola berriko lanen ondoan, etxebizitzetatik gertu zuden. Kale argi horiek plastikozkoak ziren eta ez beirazkoak, aurrekoak bezala; bat harrika zulatatu zuten eta bestea, apurtzeaz gainera, zutoinetik zintzilik utzi zuten. Atzera ipini dute argia kale argi bietan, udal arduradunek apurtutako bonbilak aldatu ostean. ■ J.D.

**ZALDIBAR**

## Eskolako lanen atzerapenak polemika piztu du

2012rako aurrekontuetan inbertsio handiena denak, hilabetetako atzerapena edukiko du

**Z**aldibarko Udala hasi da eskola eremuko berrantolaketagaz. Ez, ordea, arazorik barik. Izan ere, eskolako lurraren eraikigarritasunaren aldaketek atzerapena ekarriko diote proiektuari. Oposizioaren kritikarako gaia izan da egunotan.

**Bilduk akatsa onartu du, baina EAJri "informazioa ezkutatzea" leporatu dio**

Bilduk dioenez, 2006an, SR1 izeneko etxebizitza sektorea egiteko lurraren eraikigarritasuna aldatu zuen aurreko gobernua, lantzeko lurraren metro koefizientea 1,05etik 0,1era pasatuz. Ondorioz, 600 metro koadroko eraikinak egin ahal izatetik 189kora murriztu zen aukera.

Gero, zatikako planaren moldaketan berriro 1,05era aldatu gura ei zuten, baina Aldundiak atzera bota zuen. Orain, udalak lanak lehiaketara ateratzean, 1,05eko datua hartu du oinarri, salatu dutenez, udalean ez zeukatelako Aldundiaren dokumentu digitalik. Antza denez, paper eta grafikoen aurreko araua agertzen zen. Bilduk onartu du gobernu taldearen akatsa izan dela, baina EAJri "informazioa ezkutatzea" leporatu dio. Bilduren ustez, "argi geratu da hezkuntza eremuak EAJrentzat ez daukala garrantzirik". "SR1a espekulatuzaileei mesede egiteko antolatu zuten", dio.

Udan hasi gura zuten obra hilabete batzuk atzeratuko da, araua 1,05era aldatzeko. Lehiaketa zabalik dago enpresentzat; herritarrek gehien bozkatutakoa aukeratuko dute. ■ M. Onaindia



Arantza Baigorri alkatea eta Jose Andres Urizar zinegotzia.

## Gobernuaren proposamenaren kontra oposizioko hiru taldeak

Udal gobernuko Bilduren sei zinegotzien aldeko botoekin onartu zuten, eguaztenean, 2012ko udal aurrekontua. Kontra bozkatu zuten oposizioko EAJ, PSE-EE eta PP alderdiek.

Guztira, 2.894.721 euro jasotzen ditu aurrekontuak (iazkoa baino %6,9 gehiago). Aitor

Arizmendarreta zinegotziak azaldu duenez, "herri batzarretan jasotako ekarpenak" izan dituzte lehentasunen zerrenda osatzeko oinarri. Hezkuntza hartu dute udalaren aurtengo lehentasun bezala: iaz baino %44 gehiago inbertituko dute arlo horretan. ■ I.E.

**MALLABIA**

## Atxiloketaren irudiak emateak kezka sortu du epaileengan

Mallabian hilda agertu zen Jaime Olañeta, martxoaren 9an. Haren ustezko hiltzailea atzo eroan zuten epailearen aurrera. Barakaldoko emakume bat da, eta martitzenean atxilotu zuten, telebista irudietan erakutsi zuten bezala. Horrek kezka sortu du Bizkaiko Judikatutarako epaileengan, kasua oraindino zabalik dagoenez, hedabideetara filtratu dituzten datuek ikerketa zaildu ahal dute-eta. Hori aztertzeko, atzo batzartzea zuten aurreikusita epaileek, Bilbon.

**elcorreo.com-en arabera, Bilboko errekan aurkitu dute ustez Jaime Olañeta hiltzeko erabilitako aiztoa**

Atxilotua epaitegitik pasatu ostean, Anbotok Ertzaintzara deitu zuen, datu berririk zuten galdetzeko. Ezin dutela informaziorik eman adierazi zuten: "Kasua sekretupean dago". Hala ere, *elcorreo.com*-en Ertzaintzako urpekariaren irudia ageri zen, Bilboko errekan topatutako laban batekin eskutan, ustez Jaime Olañeta hiltzeko erabili zutena.

Etxe alboan agertu zen Olañeta hilik, Osmo auzoan. Bere autoaren ondoan aurkitu zuten 68 urteko gizonezkoa, labankadekin eta indarkeria zantzuekin. J.G.

## Ibaialderen aldeko Elkartasun Eguna ekitaldiz beteta dator

Sartagudako ikastolari laguntzeko egun osoko egitaraua prestatu dute

Mallabiko kultur eta kirol elkar-teak, beste hainbat eragilegaz eta udalagaz batera, Sartagudako (Nafarroa) Ibaialde ikastolari laguntzeko Elkartasun Eguna antolatu dute zapatarako. Nafarroako Gobernuak diru sarrerak murriztu dizkio, eta ikastolaren egoera ekonomikoa larria da.

Egitaraua 11:00etan jarriko dute martxan, umeentzako tailer eta jolasekin. Goizeko 11:00etatik 13:00etara Spinning saioan parte hartzeko aukera eskainiko

dute plazan. Bitartean, tonbola zabalik egongo da.

Bertso-poteoak 13:00etatik 14:30era herriko tabernak zeharkatuko ditu. Eguneko ekitaldi nagusia bazkari herrikoia izango da, 14:30ean. Herriko kantekin

**Eguneko ekitaldi nagusia bazkari herrikoia izango da. Ondoren, herriko kantekin girotuko dute bazkari ostea**

girotuko dute bazkari ostekoa. Bitartean, hurrek irudi erraldoi bat margotuko dute. Lan hori Ibaialde ikastolako ikasleei oparitutako diete.

Arratsaldean, 17:00etan, haurrentzako herri kirolak antolatuko dituzte plazan. Eguna borobiltzeko The Frikis, The Mokors eta beste talde sorpresa batek kontzertua eskainiko dute. Egun guztian zehar Ibaialde ikastolako guraso elkarte ordezkariek parte hartuko dute. ■ J.G.



Antolatzaileek azaldu dutenez bazkarira joateko txartela erosi beharra dago.

**GARAI**

## Inbertsio handiena, hondakin guneei begira

Garaiko Udalak 2012rako aurrekontuak onartu ditu, 499.920 eurogaz. Hortik 126.240 euro bideratuko dute inbertsioetarako, eta zati handiena zaborra batzeko guneak sortzeko erabiliko dute: 101.600 euro. Guztira, zazpi gune izango dira eta auzoen sarreretan ezarriko dituzte, kamioiak auzoetara sartzea saihesteko. Diru-laguntzei itxaroten badabilta ere, aurtengaritzeko asmoa agertu dute udal ordezkariek. Tokiko Agenda 21en baitan kokatu dute egitasmoa.

**2012rako aurrekontuetan, 126.240 euro bideratuko dute inbertsioetarako**

**Wi-fi konexioa herrian egokitzeke 9.000 euroko partida prestatu dute**

Bestalde, ur instalazioetarako 10.000 euro gorde dituzte, eta auzobideak konpontzeko 5.640 euro. Kopuru hori handitu daitekeela argitu dute, beharra sortuz gero. Interneteko wi-fi konexioa herrian egokitzeke, 9.000 euroko partida prestatu dute; herrigunera ez ezik auzoetara ere eroan gura dute konexioa.





# MARTXOAK

# 31

DURANGOKO BONBARDATZEAK OROITUZ  
**DURANGO 2012**

## MARTXOA

**23 OSTIRALA** 19:00  
 Helduentzako ipuin kontaketa, Udal Liburutegian

**24 LARUNBATA** 17:00  
 "Durango gogoan" parte hartzeko panela,  
 Andra Maria elizpean

**24-31 ERAKUSKETA UDAL LIBURUTEGIAN**  
 "Ahaztutako munduaren geografia"

**25 IGANDEA** 19:00  
 Bakearen aldeko kontzertua, Kurutze Santun  
 B. Ertzillako Kontserbatorioko ikasleak

**26 ASTELEHENA** 15:00  
 Irrati tailerra, Nevers ikastetxea, Durango irradian (107.8)

**27 ASTEARTEA** 19:00  
 "Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937" liburua  
 eta "Durangoko bonbardaketa" dokumentalaren  
 aurkezpena, Hizlaria: Jon Irazabal, Santa Susanako Elizan

**30 OSTIRALA**  
 20:00 "Zerutik sua dator" aurkezpena, Andra Marian  
 22:00 "Lurra astinduz" antzerkia, Karrika, San Agustinen

## 75. URTEURRENA

**31 LARUNBATA**

12:00 Gerra zibilaren biktimei omenaldia, Kanposantuan  
 Autobus zerbitzua 11:30ean Komentu kalean

12:00 Umeentzako ipuin kontaketa, Udal Biblioteka  
 3-5 urte bitartekoentzat

12:30 Umeentzako ipuin kontaketa, Udal Biblioteka  
 6 urtetik gorakoentzat

20:00 Aurkezpena, oroimen-hitzak, lore eskaintza,  
 aureskua eta Goraintzi abestia,  
 Andra Maria elizpean

## APIRILA

**1 IGANDEA** 19:00  
 "Lurra astinduz", antzerkia, Karrika, San Agustinen



DURANGO  
 Udala • Ayuntamiento



www.durangokoudala.net



EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
 DEPARTAMENTO DE CULTURA



DURANGALDEA

# ELA eta LAB sindikatuek greba deialdia egin dute

LABek langabetuei zuzendutako "dinamika" sortu du. ELAk dio mobilizazioa dela "tresna" bakarra

**D**urangaldeko ELA eta LAB sindikatuek, bakoitzak bere aldetik, datorren martxoaren 29ko greba orokorrean parte hartzera dei egin dute.

LABek azaldu duenez, gobernuak politika sozial eta ekonomiko kapitalaren mesedetan jarri dute. Egoera honen aurrean, LABek langabetuen inguruko dinamika bultzatzen ari dela jakinarazi du:

**ELAk eta LABek diotenez azkenengo lan-erreformek prekaritatea bultzatzen dute**

"Lana badago eta aberastasuna ere bai, baina gaizki banatuta". Apirilean hainbat eragilerekin batzartzeko asmoa dute hiru puntuko idatzi bat adosteko: lehenengoa, lan eta aberastasun banaketa; bigarrena, udal agintariei langabezia-

gaz amaitzeko politikak bultzatzeko eskatzea; eta hirugarrena Durangaldeko langabetuei eskualde mailako "dinamika erraldoi" batean parte hartzeko dei egitea.

ELAko Uribarri Irigorasek eguaztenean emandako prentsurrekoan azaldu duenez, "oraingo hau inoizko lan-erreformarik gogorrena da". Erreforma guztiz antide-mokratikotzat jo du gainera, "ez delako eztabaidarik egin". Azken urte eta erdian lau lan-erreforma egin direla gogoratu dute. Gobernuak neurri hau "ezinbestekoa" dela dioen arren, aldi baterako kontratuak gehitu egin direla, soldata jaisten ari direla eta langabezia tasa handitzen doala diote: "Politika krisi sakonean amildu da".

Mobilizazioa dela "tresna" bakarra iritzita, martxoaren 29an Bilbon eta Durangaldean antolatuko diren protestetan parte hartzera dei egin dute. ■ J.Guenetxea



LABek langabetuen inguruko "dinamika erraldoia" eratuko du.



ELAk grebaren inguruko prentsurrekoa eman du asteon.

MAÑARIA

## Ursula Donea elkarte indartu guran, laguntza eskatu dute

Zuzendaritza batzordea berriro egin du Ursula Donea nagusien elkarteak. Baina, pertsona gehiagoren laguntza ere eskatu dute. Beharrezkotzat jo dute, "elkarrekin bizirik jarraituko badu". Norabide horretan, herritarrek elkartean izena ematera eta ekintzetan parte hartzera deitu dituzte arduradunek.

**Herritarrek elkartean izena ematera eta ekintzetan parte hartzera deitu dituzte**

Horretaz gainera, datozen asteetarako zenbait ekimen iragarri dituzte. Martitzen eta eguenean mantenu gimnasia egingo dute udaletxean, 19:00etatik 20:00etara. Apirilaren 17an, 19an eta 20an *Arreta pertsonala eta makillajea* ikastaroa garatuko dute, doan, 15:30etik 17:30era. Bestalde, martxoaren 28an Bilbora joango dira eta Arkeologi museoa bisitatuko dute, Aman-komunazgoak eraturako irteeragaz bat eginda. ■ M.O.

# Eguenean jarduna etengo duela esan eta grebara deitu du Bilduk

"Madrildik inposatutako erabakiak" salatu dituzte koalizioko zinegotziek



Durangaldeko Bilduren hainbat zinegotzi prentsurrekoan.

Martxoaren 29rako sindikatuek deitutako greba orokorrak bat egin du Durangaldeko Bilduk. Koalizioak Zaldibarko udaletxean

**Bildu: "Beharginen emandako pausuak ezerezean uzten dabil Raxoiren gobernu"**

eman ditu bere erabakiaren arrazoiak. "Euskal Herriko beharginen urteetan zehar beraien eskubideen alde emandako aurrera pausu guztiak ezerezean uzten dabil Raxoiren gobernu". Gaineratu

duenez, "Madrildik inposatutako erabaki hauekin etorkizun barik eta indefentsio egoeran uzten ditu herri honetako beharginak". Gazteak eta emakumeak sektore kalteuenetakoak direla ohartarazi du Bilduk.

**Jarduera etetea**

Grebagaz bat egin eta martxoaren 29an ez duela jarduera politiko-instituzionalik garatuko adierazi du Bilduk. "Gure esku dagoen lekutan, egun horretarako aurreikusita zeuden batzarrak bertan behera utziko ditugu, eta oposizioan gaudenetan, deialdiak bertan behera uzteko eskatuko dugu". Gaineratu dutenez, "batzarrekin aurrera egiteko asmoa balego, ez dugu bertan parte hartuko".

Herritarrek bere erabakiaz informatuko dituztela adierazi, eta sindikatuekin ekimenak adosteko atea zabalik utzi dute. ■ M.O.

IZURTZA

## Idea lehiaketak definituko ditu bizileku berriak

Frontoiaren atzealdean egin asmo dituzten etxebizitzak zelakoak izango diren definitzeko, ideia lehiaketa abiatuko du Udalak. Orain oinarriak zehazten ari dira, gutxieneko baldintzak presatzen, eta hilabeteren barruan lehiaketa martxan ipintzeko asmoa dute. Herritarren artean egin zuten galdeketa bat, eta han irteerako ondorioak erabiliko dituzte oinarriak osatzeko.

Bestalde, etxebizitza berrien lanak hasi aurretik hainbat azterketa egin behar dituzte; azterketa akustikoa Azterlanen bidez ari dira egiten. ■ J.D.

**ETXOSTE JATETXEA**

MARTXOAREN 30ean TXARRIBODA

Afaria 21:00etan

MENUA (22 euro):

Porru patatak saiheski eta odolostegaz

Etxeko solomoa - Postre eta ardoa

Tel.: 94 682 06 31 - 48291 Atxondo

Bodegas *Launa* Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com

info@bodegaslauna.com

Tel.: 94 682 41 08

**Durangaldeko Baserritarren Elkarte**

**DIBA**

Murueta, 6

Tel.: 94 681 87 92

48200 ABADIÑO BIZKAIA





## Durungaldean labur

### Hipika Kirol Eguna bihar lurretako Gaztañatza auzoan

Hipika Kirolaren Eguna antolatu du Zelai-Alai hipika eskolak, zapaturako. Gaztañatza auzoan eskolak dituen azpiegiturretan jaialdi berezia eskainiko dute 17:00etan hasita. Hipika erakustaldiak 18:00etan hasiko dira: poney karrusela, doma aurkezpena, zaldien karrusela eta oztopo-lasterketa. Karruseleko diplomak emango dituzte ondoren. Jaialdia amaitzeko, Zelai-Alai koktela egongo da, 19:30ean.

### Elorriion udalekuak eratu dituzte Aste Santurako

Lehenengo aldia da Aste Santurako udalekuak antolatuko dituen Elorrioko Udalak. Jarduerak talde dinamikoetan eta umeen adinaren arabera prestatuko dituzte (hiru eta hamahiru urte artekoentzat), apirilaren 2tik 4ra, eta 10etik 13ra. Tarifak 90 eta 109 euro artekoak dira. Kiroldegian eman behar da izena martxoaren 25a baino lehen.

### Udalak aldi baterako lan eskaintza

Durangoko Udalak lan poltsa zabaldu du, aldi baterako hiru lan eskaintzagaz. Tartean, Landako II kiroldegian etalan-brigadan aritzeko eskaintzak. Tabirako udako igerilekuetarako ere badago eskaintza bat, maiatzaren 14tik irailaren 21era artekoa. [www.durango-udala.net](http://www.durango-udala.net).

### Zaldibarren ekimena Senegali laguntzeko

Zaldibarko Udalaren eta Liburutegiaren izenean, eskola materiala eroan dute Borhor herrira, Senegalgo mendebaldeko Thies eskualdean. Liburutegiko arduraduna joan da haraino eta, besteak beste, honakoak helarazi ditu: arkatzak, boligrafoak, koadernoak eta margoak.

## IURRETA

# Alkatearen aurkako hainbat frogabide baztertu dituzte

EAJ eta PSE-EEren botoekin bota dituzte atzera Goiuriako Kofradiak aurkeztutako hainbat frogabide

ñaki Totorikaguena alkatearen kontra Goiuriako kofradiak aurkeztutako errekusatzeko intzidenterako frogabide gehienak baztertu dituzte, hamarretik zortzi. Ondorioz, alkateak — eta onartutako beste hiru lekukoak — idatziz erantzungo die errekusatzegaz lotutako galderei: Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko jarduera eta lanetarako lizentziaren espedientetik baztertzeari. PSE-EEk eta EAJk bozkatu dute frogaren kontra. Tartean, Jose Martin Etxebarria alkate ohiaren kontrako auziko frogak ere baztertu dituzte, txostenetan jasotako frogak bakarrik onartuz.

2011ko udan lizentziarik gabe ehunka kamioien edukia isuri zutela salatu dute kofradiak, "legez kanpo" egin zen sarbide-pistak 2009an eragindako lur-jausia konpontzeko emandako baimena aprobetxatuz (2006tik itxita zegoen). Jarduera ez zela eten diote, ezta zehapen espediente agindu ere. "Neurri bakar batekin ez neurtzea" gaitzetsi dute kofradiak. EAJk, aldiz, 2008ra arte Jauritaritzaren eskuduntza zela dio.

**EAJk dio ez dagoela "onarririk" errekusatzeko intzidentziarako**

EAJk dio "berme legal" guztiek jokatu dutela eta errekusatzeko "oinarririk" ez dagoela: "Interes bat, familia, adiskidantza edo etsaitasuna eta kontratu-lotura dira errekusatzeko arrazoiak, eta ez da batere ageri". PSE-EEren ustez, berriz, hobe da probak ez onartzea, "auzi penalak argitu arte".

**la frogabide guztiak baztertu izana gaitzetsi du Bilduk, eta ontzat jo kofradiaren eskariak**

EAJk adierazi duenez, jakinarazpen bat jaso dute, Ministerio Fiskalak bidalia, eta bertan Etxebarriaren kontrako auzia artxibatu egingo dutela dakar, Durangoko auzitegiak eskatuta. Auzitegiaren arabera, prozeduran "ez da ageri" ingurumen edo osasunaren kontra "kalte larria" sortu izana; berdin prebarikazioan.

**Bildu kofradiagaz bat** la frogabide guztiak baztertu izana gaitzetsi du Bilduk, eta ontzat jo kofradiaren eskariak. Horiek Etxebarriaren kontrako auziagaz "nahastea" ere salatu du koalizioak. Kofradiak, bestalde, udalak bere defentsa ordaintzea salatu du, eta baita Totorikaguena orduan egoeraren jabe zela ere. ■ A.B.

## ABADIÑO

# Atxarte berreskuratzeko Adif-en proiektuaren kontra

Bildu: "Erabakia atzera bota edo ingurumen azterketa egin dezatela"

"Hondakindegia erraldoia". Horrela deitu diote Atxarteko harrobi izandakoa berreskuratzeko proiektuari Durangaldeko Bilduk eta AHT Gelditu! Elkarlanak. Adif enpresaren proiektua gogor kritikatu dute Errota kultur etxeko eguazteneko agerraldian.

Abiadura Handiko Trenaren lanetan ari da Adif, eta AHT erakitzeke obretan sortzen dituzten "lursoberakinak Atxarteko harrobia berreskuratzeko erabiltzea" jasotzen du proiektuak.

Onartezina deritzote Bilduk eta Elkarlanak "Urkiolako Parke Naturalaren bihotzean, eta Ingurumenaren Eraginaren Azterketarik egin gabe honelako ezaugarriak dituen egitasmo bat garatu nahi izateari".

**"Hondakindegia erraldoia" deitu diote proiektuari eta helegitea aurkeztu dute Ingurumen sailean**

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen sailean helegitea aurkeztu dute Abadiñoko Bilduren zinegotziek, eta eskatu dute "hartutako erabakia atzera bota, edo ezinbestekoa den Ingurumen Eraginaren Azterketa egin dezatela".

Eusko Jaurlaritza, Abadiño-ko Udala eta Adif "arduragabeke-riaz" jokatzaren ari direla kritikatu dute. Udalaren eta Urkiolako Parke Naturaleko Paatronatuaren jarrera ere gaitzetsi dute, "orain arte isilik egon baitira". ■ I.E.



Durangaldeko Bilduko ordezkarien eta AHT Gelditu! Elkarlaneko kideen agerraldia.

**Hurrengo eraikuntza**

**DURANGO**

**ZARATE ELEXPE ERAGILEAK**

Bixente Kapanaga 19, behea  
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

**Elorrioren aukera onak**

**GOIURIA**  
JATEXEA  
ERRETEGIA

Goiuria auzoa 16  
48215 Iurreta (Bizkaia)  
Tel.: 94 681 08 86  
[www.asadorgoiuria.com](http://www.asadorgoiuria.com)

EZKONTZAK - JAUNARTZEAK - ENPRESA BAZKARI-AFARIAK  
BATAIOAK - EDOZEIN MOTAKO OSPAKIZUNAK - ...

**2 pertsonentzako menuak zozketatuko ditugu**  
Bidali zure datuak:  
[anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

**Hemen agertu gura badozu deitu!**

**94 621 79 02**

## BERBAZ &gt;

# “Elorrioko gazteak buru-belarri dabilta Sahararen alde; sinistu egiten dute honetan”

Maku Florentino sorreratik dabil Sahararen aldeko Lajwad elkartearen. Bihar herrira begirako aurkezpena egingo dute



## Maku Florentino •

- Elorriarra
- Sahararen aldeko Lajwad elkartearen kidea

### Aste Santuan zelakoa izango da zuen bidaia?

Amgala herriko familien etxetara joango gara 23 ikasle eta sei heldu. Inguruak ezagutzeaz gainera, irteera bat egingo dugu Rabunira, bertan parlamentua, irratia, telebista, museoak daude, emakumeen nekazaritza eskola bat ere badago han inguruan eta hori ikusiko dugu... Eta futbol zelaia, guk eurekin dugun proiektua, zelan doan ikusiko dugu.

### Futbol zelaia proiektua zelan sortu zen?

Ikasleekin joan ginen lehen bidaiaren ondoren, zertxobait gehiago egiteko gogo geneukan eta Fronte Polisarioko jendeagaz berba egin genuen. Hainbat gauza proposatu zituzten, eta egingarriena momentu hartan kirolgune bat zela ikusi genuen. Futbol zelaia egiten hasi dira. Hemengo Fronte Polisariokoeekin eta bertako alkateagaz eta kooperanteekin berba eginda koordinatzen dugu proiektua, eta azken argazkietan hesia ipini dutela ikusi dugu. Eurak oso pozik daude, futbola asko gustatzen zaie. Egia da batzutan zalantza hori sartzen dela: zelan ba futbol zelaia eta janaria ez, premia handiagoa dute... Baina han bizi dira eta jolastu ere egin behar dute, eta kirola ere egin behar dute. ■ A.Ugalde

**L**ajwad edo Leywad Saharan Fronte Polisarioak liberatutako lurraldeetako bat da, eta sahararentzat “jende eskuzabalaren lurraldea” esan gura du. Izen hori proposatu zieten sahararrek eurek Elorrion, duela urte bi sortu zen elkartearen kideei. Zapatuan herrira begirako aurkezpena egin behar dute Arriolan.

### Elkartearen aurkezpena Fronte Polisarioko kide bat etorriko da. Zer mezu zabalduko duzue?

Arinago udaletxetik egin zen beharra, eta elkarte moduan bi urte daramatzagu ia Saharagaz lanean. Taldea egonkortu egin da eta herrian nortzuk garen eta zertan gabiltzan azaldu gura dugu. Fronte Polisarioko kide bat gonbidatu dugu eta gauza arin bat izango da. Gustatuko litzaiguke eurek azaltzea zergatik behar duten urtero karabana egitea, umeak hona ekartzea, proiektuak martxan ipintzea han ura ateratzeko edo futbol zelaia bat egiteko... Zergatik jarraitu behar dugun hau egiten. Elkarte hau desegiteko asmoa-

gaz sortu da. Guk euren aldarrikapenekin bat egiten dugu; behingoz erreferenduma egin dezatela gura dugu, eta ez dadila egon premiarik umeak hona etortzeko. Euren lurraldera bueltatu daitezela. Umeei joaten direnean esaten diet: “Azken urtea izan dadila!”. Aurtengo egonaldiaren kanpaina hasi dugu, eta apirilaren 30era arte eman ahalko da izena.

### Eurek zelan bizi dute esperantza hori?

Badaukate, baina pasatzen dena da ia 37 urte direla dagoeneko eta hasierako probisionaltasun hori egonkortzen joan da. Kanpamentuetan ez dute gehiago garatu gura izan behin-behinekoak zirelako, eta jada belaunaldiak pasatu dira, eta urteak pasako dira oraindino. Kanpamentuen berri asko jakiten da baina Mendebaldeko Saharan

benetan gertatzen dena ez, eta heltzen garen heinean, euren ahotsa hona ekarri gura dugu. Beharrez gabilta udan egiten den umeen harreragaz, elkartasun karabanagaz eta ikastetxeetako egitasmoagaz.

### Gazteak horrelako gauzetara inplikatzeko ez da erraza izaten...

Zorritzen daude. Niretzako oso istorio polita da Elorrion ikastetxe bik parte hartzen dutelako. Oraindik zabalik dago beste inork parte hartu gura badu. Gazteak buru-belarri sartu dira, neskak batez ere. Kanpamentuetara egindako bidaietan gustora egon dira. Honetan sinesten dute eta urte osoa pasatzen dute beharrez: kamisetak eta materiala saltzen bidairako, medikamentuak batzen hango ospitale-tarako... Beti esaten diet eurentzako luxua dela horrelako bidaia bat egiteko aukera eduki-

## “Saharagaz lan egiten zergatik jarraitu behar den azaldu gura dugu zapatuan”

tzea. Ondo etortzen zaie adin horretan hemen bizi dutenagaz zeharo apurtzea, eta gure gizarteagaz hain zerikusi gutxi daukan gizarteagaz kontaktua edukitzea. Iaz lehenengo bidaia egin zutenean guraso batzuk komentatu zuten gazteek buruan *klak* bat izan zutela. Gero hona bueltatu eta honek jan egiten zaitu.

### Gazteak eta helduak, markatuta bueltatzen zarete Sahararik.

Oso gogorra da ikustea horrenbeste urtetan egoera horretan bizi direla. Baina ikustea zenbat barre egiten duten, familiagaz eta lagunekin zelako hartuemanak dituzten... Zenbat gauza dauzkagun behar ez ditugunak, eta ez materialak bakarrik, gainera jartzen ditugun zamak ere bai. Ikusten duzu zoriotsu izan daitekeela horrelako leku baten.

“Aste Santuan 29 pertsona joango gara kanpamentuetara eta Amgalan egiten dabiltzan futbol zelaia ikusiko dugu”

### Zapatuko aurkezpena

19:00etan hasiko da ekitaldia, eta ikusentzunezkoak, Namek Planet musika taldearen kontzertu akustikoa, eta Fronte Polisarioko kide baten berbaldia izango dituzte. Ondoren, Ateneoan te saharauia dastatu ahalko da.



@anbotokultura

# KULTURA

LITERATURA > ELKARRIZKETA

## “Amaiera jakinda jardutea aspergarri egiten zait”

Joan zen astean aurkeztu zuen Iñaki Irasizabal idazleak ‘Orbe auziaren ingurukoak’ nobela beltza. Gizarteko gai sakonei buruz idazten du zornotzarrak. Oraingoan, etikari buruz, erritmo biziko liburuan



**Aurretik egin dituzun lanekin alderatuta, beste bideren batetik jo duzu honetan?**  
Lehenengo bidetik jarraitzen dut. Aurretik kaleratu ditudan liburu gehienak nobela beltza dira, eta hau ere bai. Ezaugarri nagusia erritmo azkarra du, eta liburuak irakurterraz ziatea bilatu dut honetan ere.

**Zelan egin duzu lan?**

Idea pare bat hasieratik izaten ditut argi, eta horren inguruko eskema bat osatzen dut. Idazten hasten naizenean ez dut jakiten istorioa norantz joango den. Pixkanaka joaten naiz zehazten. Amaiera zabalik uztea gustatzen zait, zelan amaituko den jakinda jardutea aspergarria egiten zaidalako.

**Kazetaritza eta soziologia ikasten ibilitakoa zara, eta liburuan mundu bi horiek uztartzen dituzu.**

Bai, protagonista idazlea da, eta Zornotzako Institutuko maisua. Gizartea behatu eta interpretatzea, eta jendearen arteko harremanen mundua interesatzen zaizkit.

**Besteak beste, Zornotzan eta Gernikan kokatu dituzu liburuko gertakariak.**

Gehienbat Gernika inguruan kokatu dut nobela honetako istorioa, nahiz eta protagonista Zornotzako Institutuko irakaslea izan. Ezagun ditudan lekuak erabiltzen ditut gehienetan: aurreko lanak Durangon, Zornotzan, Bilbon... kokatu izan ditut.

**Zure aurreko lanen zale den irakurleari zer gehiago eskaintzen dio honek?**

Idazten ari den liburuaren argumentua azaltzen du, irratian, idazle batek. Handik gutxi-

ra hilda agertzen da. Ardura etikoaren eta ardura penalaren arteko diferentzia landu gura izan dut nobela honegaz.

**Amaiera-amaierara arte lotu barik gertatzen dena hilketa horri lotutakoa da?**

Bai, hasieran benetan zer gertatu den amaierara arte ez da jakiten. Den-dena ez da azken pasartera arte jakiten.

**Ez duzu ezer lotu barik utzi, liburuari jarraipena eman asmoz?**

Ez dut egin, ez. Aurreko nobela neskato baten desagerpenaren ingurukoa zen, eta

“Jendearen arteko harremanen mundua interesatzen zait”

“Ardura etikoaren eta ardura penalaren arteko diferentzia landu dut”

## “Saiatzen naiz betiko ikuspegia barik originalago bat ematen”



Iurretan, metalgintzan egiten du lan Durangon jaio zen eta Zornotzan bizi den Iñaki Irasizabal idazleak. Kazetaritza eta soziologia ere ikasi zituen, karrera amaitu ez zuen arren.

Kritikarien berbetan, igarri egiten da gai horiekiko interesa Irasizabalen idazkeran: liburu oso soziologikoak dira kaleratu izan dituenak.

Kritikarien berbetan, igarri egiten da gai sozialekiko interesa duela Irasizabalek

amaieran neskatoa ez zen agertzen. Oso ondo saldu zen nobela, eta jende askok esaten zidan: “Baina, eta neska zer? Non dago neska?”. Nik ez nekiela erantzuten nien. Oraingoan dena ondo lotuta utzi dut, badaezpada ere (barrez).

**Argitaratzen duzun bosgarren liburu da ‘Orbe auziaren ingurukoak’?**

Hirian argitaletxeagaz hiru atera nituen orain urte batzuk, eta Elkarregaz beste lau kaleratu ditut azken urteetan. Zortzigarrena dut *Orbe auziaren ingurukoak*. Gazte-larara ere itzuli genuen liburuetako bat.

“Tarte laburretan idazten dut. Horrela ateratzen zaizkit hain liburu meheak!”

**Idazteko prozesua atsegina egiten zaizu?**

Denbora tarte laburretan, baina egunero idazteko ohitura daukat. Ez dut sekula denbora asko etenik barik idazten ematen, horrela freskotasuna galdu egiten dela uste baitut. Uste dut irakurtzean ere igarri egiten dela tarte laburretan idatzitakoak direla pasarteak. Horrela ateratzen zaizkit hain liburu meheak!

**Lana eta idazkuntza uztartzeko denbora ateratzea zaila egiten zaizu?**

Ez zait zail egiten egunero hoge minutu edo ordu erdiz idazteko denbora ateratzea. Urduri antzean idazten dut, hasierako freskotasun eta indar hori mantendu guran.

**Orain zenbat denbora pasatu zinen irakurle izatetik idaztera?**

Orain hamar urte inguru argitaratu nuen lehenengo liburu. Horren aurretik ipuinak idazten nituen. Hainbat sari irabazi nituen ipuinekin, eta horrela hasi nintzen lehenengo liburu izango zena idazten.

**Badiharduzu zerbait idazten orain?**

Nobela bi dauzkat hasita, baina batek daki amaituko ditudan ala ez. Eskuardean ditudan bi lan horiek ere nobela beltza dira, ETA-ren ingurukoa bata. ■ I. Esteban

Europako iparraldeko idazleen liburuak daukaten arrakastak islatzen duenez, zale asko dauzkate genero beltzeko kontakizunek. “Tresna egokia da nobela beltza”, dio Irasizabalek, “liburuaren entretenitua delako, eta aldi berean gai sakonak aztertzei aukera ematen duelako”.

Azken urteetan, urtero nobela beltzaren generoko liburu bana kaleratu du Iñaki Irasizabalek.

Literatura mota horretan, “beti dago hiltzaile bat, polizia bat edo ikertzaile bat...”, Irasizabalen nobeletan bezala. Baina desberdin idatzi gura du berak: “Saiatzen naiz betiko ikuspegia barik, originalago bat ematen”.

Nobela honetan, ardura etiko eta penalaren arteko diferentzia landu gura izan du idazleak: “Gazte batzuek gauza oso larri bat egiten dute, eta horrek narama etikaren inguruko gogoeta egitera”. ■ I.E.



ASTE TEMATIKOA > DURANGON



Zalua Fuertes

# Bonbardaketaren 75. urteurrena gogoratzeko gonbitea Zilar Astean

Elkarlana dauka oinarri Durangoko plateruek antolatzen aste tematikoak: Durangoko bonbardaketa da aurtengo ardatza

**M**artxoaren hasieratik martxan dagoen egitaraua osatu dute Plateruenaren ingurura batutako Durangoko elkarte, sortzaile eta eragileek elkarlanean. Euskarazko kulturaren askotariko adierazpideetan agertuko dute zelan tratatu izan den Durangoko bonbardaketaren gaia, eta sortzaileek zelan ikusten duten gaia gaur

egungo begiekin, Zilar Astearen apirilaren 1era arteko egitarauan. Durangoko bonbardaketa hartu dute hirugarren Zilar Aste-

Durangoko hamar elkartek baino gehiagok hartuko dute parte

rako gaitzat. Faxistek zibilen kontrako bonbardaketa burutu zutela 75 urte dira martxoaren 31n.

Beñat Gaztelu-Urrutia Platerueneko kudeatzaileak esan duenez, "bonbardaketaren 75. urteurrena gogoratzeko gonbitea" luzatu gura diete Durangaldeko herritarrei. Datosen egunetan ikusgai izango diren sorkuntza lanak osatzen zein antolakuntzan,

hainbat artista, eragile, ikastetxe, eta Durangoko hamar elkarte baino gehiago aritu dira.

Elkarlan horren irudia osatu zuten, atzo, Zilar Astearen Platerueneko aurkezpenera batu ziren argazkiko 30 lagunek.

Zilar Asteagaz bat eginda, Durangoko bonbardaketarengai jorratu dute Ibaizabal, Institutua, Jesuitak, Maristak eta Iurreta BHI

ikastetxeetan: Unai Iturriagaren *Udaberririk ankerrena* komikia eta Durango 1936 elkartearen dokumentala landu dituzte.

Martitzenetik ikusgai dago (apirilaren 1era arte), baita Txelu Angoitia argazkilariak prestatutako *In Memoriam* instalazioa ere; Santa Susanan ipini du.

Martxoaren 31ren bueltan, askotariko adierazpideak baliatuz osaturiko ikuskizunak eta ekimenak izango dira Durangon, elkarlanean sortutakoak. ■ I.E.

Martxoan zehar, gaiaren inguruko gogoeta egin dute bost ikastetxetan

**kantulagun**

**SANTA ANA**  
martxoaren 24an  
13:30 Gerrako pasarteak kontatzen dituzten kantak kalerik kale abestuko dituzte Kantulagunek

**UDAL LIBURUTEGIA**  
martxoaren 24an  
10:00 Iñigo Aranbarriren berbaldia: *Hasi Durangon eta Hiroshiman gora*

**KURUTZIAGA**  
martxoaren 31n  
18:15 Bonbardaketaren ibilaldi kulturala: musika, antzerkia, dantza...

**SAN AGUSTIN KULTURGUNEA**  
martxoaren 30ean (22:00) eta apirilaren 1ean (19:00),  
Karrikaren obra: *Lurra Astinduz*

**SANTA SUSANA**  
martxoaren 27an  
19:00 Aurkezpenak: *Guda zibila Durangaldean 1936-37* liburua eta *Durangoko bonbardaketa* dokumentala.  
**apirilaren 1 arte**  
Txelu Angoitia irudi eta soinu instalazioa: *M31 in memoriam*

**PLATERUENA**  
martxoaren 28an  
20:00 Diziplina anitzeko abangoardia ikuskizuna: *1937 gaur*



ARTEA > IKUSKIZUNA

# “Orduko sentsazioak egungo bitartekoekin islatu gura ditugu”

Martxoaren 28an, Zilar Astearen barruan, Plateruenean, eskainiko dute ‘1937 Gaur’ abangoardia ikuskizuna. Durangaldeko diziplina anitzeko bost sortzailerren lana da: irudia, musika, margoa eta poesia batzen dituen



**Aurreratu daiteke zeozer? Zela-koa izango da ikuskizuna?**

**Paddy Rekalde:** 40 minutu inguruko ikuskizuna da; denboralizioaren arabera ataletan banatutakoa. Gerra aurreko egun lasaie-tatik desastretako bidea islatzen du. Tarte horretan, bizitza amildegira zelan hurreraten den erakusten duten hainbat atalek osatzen dute. Ez da ikuskizun klasiko bat, beharbada jendeak espero dezake zeozer esplizituagoa, baina hasieratik argi eduki dugu lan kontzeptuala osatu gura genuela.

“Testuak ikuskizunerako propio idatzi eta dena da emanaldi honetarako bereziki sortua”

**Zelan egin duzue ikuskizun kontzeptual hori sortzeko?**

**P.R.:** Sentsazioak hartu ditugu oinarritzat. Gerra giroan sartzea edo bonbardaketa jasatea zerizan daitekeen iradokitzen dugu. **Peru Magdalena:** Orduko sentsazioak gaur egungo bitarteko tekniko eta artistikoekin islatu gura izan dugu. Duela 75 urteko sentsazio horiek eta gaur egun munduko beste leku batzuetan bizi dituztenak dira oinarria, baina gaur egungo bitartekoak baliatzen ditugu.

**Zelan sortu da boskote hau, zelan ekin diozue elkarlanari?**

**P.R.:** Platerueneko Zilar Astea aste tematikoan parte hartzeko deitu ziguten. Aurretik elkarregaz poesia, musika, eta margoak nahasten genituela jakinda proposatu ziguten aurtengo Zilar Astean parte hartzea.

**Aurretik ere ibiliak zarete elkarlanean sortzen, beraz.**

**P.R.:** Bai. Gure betiko lanaren inguruan ariko gara honetan ere. Testu berriak sortu ditugu, eta musika berria hautatu. Peioren lana gehitu zaigu orainoan, berritasun modura: bideoa. Eskainiko duguna ikuskizun multidiziplinarra da.

“Ez da ikuskizun klasikoa, lan kontzeptuala egin gura izan dugu hasieratik”

“Ez gara ibili helburu ideologiko batez, oso espiritu estetikotik egin dugu lan”

**Zelan landu duzue bideoaren parte hori?**

**Peio Salaberria:** Denon artean egin dugu, gustora. Nik kamera eta edizio lana egin dudana arren, denon artean grabatu genuen, eta denon ideietan oinarrituta.

**Noiz hasizineten emanaldi honetarako ideiak lantzen?**

**Ekaitz Aiartzaguena:** Proposamena jaso, eta zerotik hasi ginen lana prestatzen. Enkargu bat bailitza sortu dugu. **P.R.:** Gure oinarritik sortutakoa

## ARTISTAK

**Bideo lana**  
Peio Salaberria

**Poesia**  
Paddy Rekalde

**Soinua**  
Ekaitz Aiartzaguena

**Margoak**  
Peru Magdalena  
Gotzon Garaizabal

da; musikaren, bideoaren, poesia-  
ren eta margoaren erabilpenetik,  
kontzeptu berria sortu dugu.

**Gatxa egin zaizue ikuskizuna Zilar Asteak emandako gaiaren inguruan osatzea?**

**Peru Magdalena:** Desberdina izan da. Gure aurreko lanetan, Paddy-  
ren poemak izan ditugu gehi-  
entan oinarri. Oraingoan, testuak  
ikuskizun honetarako idatzi ditu  
propio Paddy Rekaldek, eta dena  
da Platerueneko emanaldi hone-  
tarako sortutakoa.

**Izenburuan diozue abangoar-  
diako ikuskizuna dela.**

**P.M.:** Horrela deitu dugu, ikuski-  
zuna ez dela lan historizista edo  
klasiko bat adierazteko. Sentsa-  
zioak iradoki gura dituen baizik.

**Denboran urrun sentitu arren,  
sentipen horiek oso gaurkoak  
direla adierazi gura duzue?**

**P.R.:** Bai, eta hortik dator ikuski-  
zunaren 1937 gaur izenburua ere.  
Jendeari sentiarazi gura diogu gaur  
izan daitekeen gaurko egunean  
halako egoera batera ailegatzea.  
**P.M.:** Hain zuzen, sentsazio horien  
arabera jardungo dugu guk ere  
oholtzan: asko dauka ikuskizu-  
nak inprobisaziotik.

**E.A.:** Dena den, ez gara ibili hel-  
buru ideologiko batez. Oso espi-  
ritu estetikotik egin dugu lan:  
momentu historiko bat estetiko-  
ki estrapolatu dugu.

**Zuen aurreko lanekin badauka  
antzekotasunik?**

**P.R.:** Bitartekoak dira berdinak,  
baina ez dauka zerikusirik handirik.  
Beste giro bat dauka, eta bideoak  
ematen dio berritasuna: bideoa da  
ikuskizunaren haria. ■ I. Esteban

## PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



MARTXOAK 23 21:30ean  
DURANG(H)OTS JAM SESSION  
KONTZERTUAK. Sarrera doan.



ZILAR ASTEA:  
M31 (IN MEMORIAM), LITERATURA  
ESKOLA, KANTULAGUN, AURKEZPENA  
ETA DOKUMENTALA, 1937 GAUR, LURRA  
ASTINDUZ ETA IBILALDI KULTURALA.



MARTXOAK 24 21:30ean  
LOS CHUNGITOS + ADABEGI  
KONTZERTUA. Sarrera: 15-17euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

## AVANTI Traspasos Antzerki Taldea



Martxoak 24 • 20:00

San Agustin  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO UDALA

## Hitz liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776



# Behargintzak 58 enpresa berri sortzen lagundu du 2011n

Krisiak Durangaldean gogor eragin duen arren, badira ekaitzari aurre egitea erabaki duten ekintzaileak ere. Gehienak langabetuak dira, eta beste enpresa batzuetara lan bila joan beharrean euren sortu dute



**I**turginak, arropa denda, bidaia agentziak, tabernak, enpresei zerbitzua eskaintzera bideratutako enpresak... Hainbat arlotako enpresak sortu zituzten iaz. 2011n, guztira, 146 ekintzailek eman die aholkua Behargintzak.

Enpresen sorkuntzarako teknikari Maria Jesus Ormaetxeak azaldu duenez, aldatu egin da enpresak sortzeko motibazioa: "Orain urte batzuk buruan bueltaka zuten proiektuak garatzeko aukera ikusten zuen jende gehienak". Orain geroago eta gehiago langabezian gelditu den jendea ere joaten da aholku bila Behargintzara. Ormaetxeak berak eman du datuen berri prentsaurrean, Augusto Uriarte Behargintzako zuzendariagaz eta Oskar Zarrabestia Amankomunazgoko presidentearagaz.


Amankomunazgoa zerbitzu hau eskaintzen hasi zenetik -2002tik- 1.000 pertsona baino

gehiago hurreratu dira, 600 proiektu baino gehiagok. Ormaetxeak nabarmendu duenez, sortutako enpresetatik %90 inguru mantendu egin da merkatuan. Garrantzitsuenak merkataritza eta zerbitzuen sektoreetakoak izan dira. Gehienek enpresari indibidualaren forma juridikoa edo autonomoarena aukeratu dute.

2011n Behargintzara hurreratutako ekintzaileen %40 Durangokoak izan dira; guztira 59 ekintzaile. Aipatzekoa da 25 eta 45 urte bitarteko pertsonak izan direla batez ere hurbildutakoak; gehienak langabezi egoeran zeuden. 146 ekintzaileetatik 80 emakumeak izan dira. Zerbitzuak, oro har, 639 kontsultari erantzun die.

Langabetuak dira batez ere euren enpresa sortzeko Behargintzara aholku bila joan direnak; guztira 82 (39 gizon eta 43 emakume). Lanean zeuden gainerako 64ak. A.U. / J.G.

## EKINTZAILEEN ESPERIENTZIAK



El Armario de Lola  
Veronika Linares (argazkian)  
Asier Mendez

### "Behargintzak hasiera-hasieratik lagundu gaitu"

2011ko azaroan El Armario de Lola izeneko arropa denda zabaldu zuten. Enpresa gura duten moduan kudeatu ahal izatea da ekintzaile hauen helburua. Merkatuan leku bat egitea eta eskaintzen dutena ezagutzera ematea dela orain arte egingandako bidean topatu duten zailtasun handiena azaldu dute. Edozeinentzako negozio bat zabaltzea errazagoa izan beharko litzatekeela azpimarratu dute, hainbeste paper eta burokrasia egin barik.



El mundo del jabon  
Oihane Urkiza

### "Bezeroei produktu ekologikoen inguruan berba egiten diegu"

Xaboi naturalak, glizerinazkoak, aire-freskagarriak, kandelak, kosmetika ekologikoa eta beste hainbat produktu saltzen dituzte El mundo del jabon denda. Azaleko arazoak dituztenei kalitatezko produktuak prezio onean saltzeko Durangaldean harrera ona izan dela azaldu digu Oihane Urkizak. Eman duten lehen urratsa denda ezagutzera ematea izan da: "Jendea produktu ekologikoen abantailez kontzientziaztea gura dugu".

### "Arazoak dituztenei ikasketetan lagundu gura diegu"

Aittu akademiak hezkuntzako maila guztietan laguntzeko helburua du, Lehen hezkuntzatik hasita unibertsitateko ikasketetara arte. Lan taldearen lema "Zure ikasketak hobetzeko, zatoz!" da. Saio bakoitza ikaslearen beharretara egokitzea erronka handia dela dio Ainhoa Apaolazak: "Pertsona bakoitzak behar duena asmatzen jakin behar dugu". Ekintzaile moduan, aholkularitza fiskal eta komertzial hobea izan gurako luke.



Itsaso eta Ainhoa Apaolaza  
Aittu akademia

Eurak sortu duten eta gustuko duten ideia batetik diru-sarrerak lortzea da Alex eta David Villarrubia- ren berbatan orain arteko ibilbidean sortu berri duten enpresak eman dien poztasunik handiena. Hala ere, krisiaren eraginez inbertsioek behera egin dutela nabaritu dutela aitortu dute. Enpresa bat sortzen denean, inbertsore egonkorren falta nabaritzen dutela azaldu dute bi anaiek, eta bezeroen zerrenda egiten hasi behar dutela enpresari.

### "Panel digitalak martxan jartzen dihardugu"



Alex eta David Villarrubia  
Dsbnet



## “Poztasun handia ematen digu gustura lan egiteak”



Haizea Laibe, Patricia Barrenetxea, Aintzane Goienetxea. Bare Bare ileapaindegia

Urriaren 21ean jarri zuten martxan Bare Bare ileapaindegia Durangon. Estetika zentroa ere badute. Gustora lan egiteari garrantzia handia ematen diote emakume ekintzaile hauek. Negozio bat martxan jarri behar denean egin behar diren tramite guztiek buruhauste handiak ematen dituztela ere azaldu dute. Behargintzaren aholkularitza zerbitzuak asko lagundu dituela diote, baina jarduera hasi aurretik egin beharko litzateke lagaratu dute.



NorArte ilustrazio estudioa Vega Asensio

## “Nire enpresan ilustrazio zientifikoa lantzen dugu”

Ilustrazio zientifikoa lantzen duen estudioa sortu du Vega Asensio. Marrazki hauek doktoretza tesietan, tesinetan, artikuluko zientifikoetan eta informazio paneletan agertzen dira. [www.norarte.es](http://www.norarte.es) web gunearen sorreragogoan du Asensio, enpresaren erakusleho hau egiten hainbat hilabete eman zituzten-eta. Oztopo handiena bezeroengana heltzea eta hauek ilustratzailearen lana baloratzen jakitea dela azaldu digu, “ofizio oso ezezaguna delako”.

## “Albaitaritzan hainbat urtetako eskarmentua dugu”

Albaitaritzan hainbat urtetako esperientzia dute Eva Gorostola eta Uritz Alday. Medikuntzan masterra izateaz gainera, nazioartean ere jardun dutelanean. Orain, Traña-Matienan albaitaritza klinika eta denda espezializatua zabaldu dituzte. Zerbitzu integrala eskaintzen dute euskaraz. Ordutegi jarraia dute eta larrialdietarako 24 orduz atenditzen dituzte bezeroak. “Tratu espezializatua eskaintzen dugu bezeroaren beharren arabera”, adierazi dute.



Gure Kide albaitaritza klinika Eva Gorostola Uritz Alday

## “Bezero batek ni gomendatzeak indarra ematen dit”

Ileapaindegia eta estetika zentroa den arren, Pilar Colmenerok fotodepilazio zerbitzua ere eskaintzen du. “Poztasun handiena bezero batek gomendatzen nauenean hartzen dut. Indar handia ematen dit lanean jarraitzeko”. Ekintzaile honek dioenez, “enpresa bat martxan jarzea zenbat kostatzen den ez zara konturatzen horretan hasi arte”. Laster webgunea ere gertu izango du sarean bezeroen esku: [www.pilarcolmenero.com](http://www.pilarcolmenero.com)



Pilar Colmenero Ileapaindegia eta estetika



Las Brasas Luis Nuñez Araceli Napan

## “Oilaskoaz gainera plater peruarrak eskaintzen ditugu”

Behargintzaren aholkularitza zerbitzuaren eta Iurretako Institutuko Urratsbat ekintzaileentzako zerbitzuaren laguntzagaz, Las Brasas oilasko-denda zabaldu dute. Txingarretan erretako oilaskoak saltzen dituzte, labe ekologikoan eginak; baita bestelako jakiak ere. Plater peruarrak ere prestatzen dituzte. Harrera oso ona izan dutela azaldu dute eta Peruko enpresa batez hartu-emanen jarri dira erretegi kate bat sortzeko.



Alaitz Bizkarra Masaje terapeutikoak

## “Masaje arloan egunera egon beharra dago”

Masaje terapeutikoetan egunera egotea garrantzitsua da bezeroei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko, Alaitz Bizkarraren berbatan. Krisi sasoiaren enpresa berri bat sortzea oztopo bat dela argi dauka, baina. Erakundearen aldetik laguntza handiagoren falta igartzen du mota honetako ekimen bat martxan ipintzerakoan. Hala ere, bezeroei errekupeazioan laguntzeak eta mina kentzeak motibatuta egiten du aurrera jarraitzen.

## “Behargintza eta +Dendak babesa izan dut”

Jendearenganako hurbiltasuna lortu duela azaldu digu Maria Jose Goitzek perfumeei denda. Baina, honelako enpresa txiki bat martxan jartzerakoan, zergen murrizketaren bat egotearen falta sentitu du, “batez ere krisiagaz bizi dugun sasoi gogor honetan”. Hala ere, Behargintza eta +Dendak merkatari elkartearen babesa jaso du denda zabaltzean eta eman dituen lehenengo pausotan. Familia ere aldamenen izan duela azaldu du.



La botica de los perfumes Maria Jose Goitz

## “Coaching-a jendeak zer den ez jakitea oztopoa da”

Bizitzaren hainbat arlotan (pertsonalean, lanean, profesionalean, hezkuntzan...) helburuak jarri eta horiek lortzeko ekintza-plana martxan jartzen laguntzen du Isabel Santiagok. Pertsonak barne-garapenean laguntzen ditu. Erantzunak eta konponbideak bilatzen laguntzen du. Bana-ka edo taldeka lan egiten du, gainera. Ibilbide honetan topatu duen oztopo nagusia, jendeak *coaching* zer den ez jakitea izan da. Baina horrek badu konponbidea.



Isabel Santiago El espejo del coaching



# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

**Gutunak** @

## Bonbaketak 75 urte martxoaren 31n

Martxoaren 31n 75 urte beteko dira Durango gupidagabe suntsitu zuen bonbaketa gertatu zenetik. Mola jeneralak zuzentzen zuen armada faxistak eratu zuen ekintza genozida eta Italiako hegazkinek gauzatu.

Aurten, lehen aldiz, 75 urte pasatu eta gero, Durangoko Udalaren gehiengoak onartu ditu, besteak beste, a) Espainiako eta Italiako gobernuen erantzukizuna eta egiletza onartu eta jendaurrean barkamena eskatu dezaten premiatzea, b) gaur arte egia isilarazteko jarraitutako bidea arbuizatea, eta c) Durango garbitzen eta berreraikitzen lagundu zuten preso errepublikarrei eskerrak ematea.

75. urteurrenean hainbat ekitaldi interesgarri antolatu dira Durango bonbaketa oroitzeko, belaunaldi berriei egia jakinarazteko eta munduko ezin bazterretan halakorik berriro gerta ez dadin eskatzeko. Batzuk udalak antolatu ditu. Beste batzuk, Zilar Astearen barruan, hainbat herritalde eta ikastetxeren artean eratu dira. Zilar Astearen helburua, gaia ikuspegi eta diziplina ezberdinetatik lantzea da, eta horretarako batxilergoan interbentzio didaktiko berezia, erakusketak eta antzekizuna presatu dira. Baina bada beste ekitaldi azpimarragarri bat Zilar Astearen barruan, 31n bertan bonbaketak gehien birrintu zituen zenbait gunetatik zehar egingo den ibilbidea hain zuzen. Ibilbidea 18:15ean hasiko da Kurutzian, *Egia, Justizia eta Erreparazioa* eskatuz, eta Durango kaleetan barrena jarraituko du, tartean hainbat eginkizun burutuz, 20:00etan Elizpean urteroko ekintza nagusia egiteko: oroimen ekitaldia eta bonbaketa jasan zutenei lore eskaintza.

Durangoko Udalak antolatzen dituen ekitaldien artean, eguerdiko 12:00etan *Gerra zibilaren biktimei omenaldia* dago, hilerrian azken urteetan egiten dena. Durango 1936 Kultur Elkarteak ez da bertan egongo, ez baitago ados ekitaldi horrekin. Hasteko, martxoaren 31n bonbaketa oroitzeko eguna izan behar dela aldarrikatzen dugulako. Populazioaren %5 hil zuen bonbaketak ez al du merezi urtero modu eskusiboan gogoraraztea? Gure herria birrintu zuen ekintza genozida horrek ez al du merezi egun bat urtero? Zergatik ez dugu ikusi nahi Durangok jaso zuen bonbaketa denon aurkakoa izan zela, genozidioa izan zela? Zergatik ez dugu ikusi nahi bonbaketak haurrak eta helduak, gizonezkoak eta emakumezkoak, gorriak eta zuriak hil zituela? Zergatik ez dugu jakin nahi bonbek ez dutela herritarrik bereizten krudelkerian?

Durangoko Udalak, osterara, gerra zibilaren biktimei egiten die omenaldia egun horretan. Gerra zibila ala altxamendu faxista? Guk biktime guztiak errespetagarriak direla uste dugu. Altxamendu faxistak eragindako biktime batzuei Durangoko Udalak berrogeitaka urteetan egin zuten izugarritzko omenaldia, horretarako kapera kristau berezia eraikiz hilerrian. Errepublikaren eta Euskal Herriaren alde egin zuten biktimei ez zaie halakorik egin gure herrian. Justizia eta Erreparazioa eskatzen dugu, besterik ez.

Nola uste du Durangoko Udalak *Adiskidetzeta eta bakea* deitzen duen kapera kristau batean egin behar zaiela omenaldi bateratua gerrako biktime guztiei? Dagoeneko ez al dakigu denon ideologiak errespetatu behar ditugula? Ez al dakigu askatasunaren alde bizitza eman zuten durangar asko eta asko ez zirela kristauak?

Nola uste du Durangoko Udalak hilerriko bazter batean guztiakin hitzik egin gabe itxi daitezkeela altxamendu faxistak eragindako zauri isilduak?

Horregatik guztiagatik Durango 1936 Kultur Elkarteak ez da hilerrian izango, baina izango da Zilar Astearen eta Elizpean, egia, justizia eta erreparazioa eskatuz.

Durango 1936 Kultur Elkarteak

## Lan erreforma errealitate gordina gure eskualdean

Azken erreformaren berri eduki genuenean beldurtu egin ginen. Gero, idatziz jaso eta irakurtzerakoan eskuak burura eramane genituen eta, orain, gure inguruko enpresetan errealitate bihurtzen ari dela ikusi dugunean, aurreikusten genuena baino askoz ere txarragoa dela esan dezakegu.

Kapitalak beti eskatu duen erreforma da, lan harreman ereduak goitik behera aldatu eta patronalari lan munduan nahi duena egiteko ahalmen osoa eman dio. Enpresariak alde bakarreko erabakitze gaitasuna dauka eta erabaki guztiak, esan beharrik ere ez dago, langileon aurkako eraso bortitzak izango dira.

Hor dugu ALFA taldea, erreforma aplikatzeko denborarik galdu ez duen lehen muntroa. Soldata jaitsi nahi die bere langileei, lan baldintzak aldatu nahi dizkie oinarritzko eskubideak errespetatu gabe. Noski, azken erreformarekin posible baita langileon eskubideak errespetatu gabe legea betetzea. Azkenean, kapitalak ere eskubideak dituela esango digute eta legea hori bermatzeko dagoela... En fin! Soldata %10 jaisteaz gain, hainbat langile zentroz aldatu gura dituzte. Eta noski, hori guztia, egoera honek enpresariari eman dion botereak sortutako beldurraren izenean. Kasu askotan, gainera, langileok sufritzen ditugu enpresaburuek egindako gestio txarraren ondorioak; hau da, beraiek kudeaketan erratu edota axolagabekeria jokatu, eta soldata jaitziera eta erasoak guk jasaten ditugu...

Durangoko enpresa batean absentismoagatik lehen kaleratzea egon da; lau hilabetez %25eko baja justifikatuak eduki dituen mutil bat kale gorrian utzi dute Fumbarriko bazkideek... Alajaina! Hori onartzen badugu, edo nor izan daiteke hurrengoa. Katarro txiki baten beldurrez bizitzera kondenatu nahi gaitu patronalak, eta ez gaude hori onartzeko prest!

Langileok aukera bakarra dugu honi guztiari aurre egiteko; Madrilgo erreformen inposaketa ereditutik behin betiko ihes egitea. Premiazkoa da langileontzat bide propio bati hasiera ematea, kapitalaren helburuak eta langileonak berdinak ez direla ozen oihukatze momentua da.

ALFA taldean langileen eskubideak bermatzea edota Fumbarriko kaleratzea bertan behera uzteko tresna bakarra dugu: langile borroka. Eta hori inoiz baino argiago daukagu. Horregatik, dei egiten dizuegu datozen egun eta aste-etan egongo diren mobilizazioetan parte hartzea:

- Martxoaren 24an, eguerdiko 13:00ean, ALFAko langileen manifestazioa Eibarko Untzaga plazatik.

- Martxoaren 29an, goizeko 11:00etan, kontzentrazioa Fumbarriko ateetan. Gero, Bilboko manifestazioa kotxe karabana aterako da bertatik.

Ah! Eta noski, eraso eta zapalketa bortitz honi erantzuteko euskal langilegoak martxoaren 29an greba orokorra.

Durangaldeako LAB

## Sei hankako mahaia



Greba

Dani Maeztu Aralar

"Historia garaikidean egin diren lan erreforma guztietan atzera egin izan dugu; gerora ez dugu galdutakoa berreskuratu eta orain berriro atzera egingo dugu". Gaurko balio duen esaldi hori atzokoa da, zehazki, 2010eko urrikoa. Zapateroren gobernuak ekonomia eta enplegu alorrean zeraman noraeza zuzentzeko-edo, lan erreforma onartu zuen, eurek diseinatutakoa eta EAJren abstentzioarekin onartua. 2010eko lan erreformaren inguruan Eusko Legebiltzarrean izan genuen eztabaidan bota zuen alderdikide batek esaldi hura, eta egun hartan zeukan esangura bera dauka bi urte beranduago esanda ere.

Hipotesi faltsua eta zinikoa gizarteratzen ari dira: krisi sozioekonomikotik ateratzeko guztion esfortzua behar omen da. Eta gezur bikoitza da: sakrifizioak ez dira alde guztietan ematen ari, eta ez dago bermerik sakrifizioak egiteak herritarrek lagunduko dituenik, alegia, sakrifizioak egitearen onurak herritarroi itzuliko zaizkigunik. Orain arte bestelako ereduak izan ditugu. 1990eko hamarkadan lan erreforma bi egin zituen alderdi sozialistak, garai hartako krisiaren aitzakiarekin, eta krisitik atera arren langileen kalterako hartu ziren neurri horietan ez zuten atzera egin.

Badu zer pentsatu gaur egungo gizarateak. Laneko eskubideei dagokionean behintzat atzera egin ari garela dirudi. Gure aitite eta amamek, gure gurasoek irabazitako eskubideak galtzen ari gara eta baliteke gure seme-alabei uzten diegun egoera gaurkoa baino urratuagoa izatea. Aurreko belaunaldietako langileek irabazitako eskubideak galtzen ari gara eta atzerako bide horri muga bat jartzea beharrezkoa da. Helburu horrekin, greba eguna deituta dago datorren egunerako. Langileak, lan eskubideen bide horretan aurrera begiratzen jarraitu behar dugu! Horretarako, greba egiteko gonbidapena luzatzen dizue Aralarrek.

### Laguntzaileak:

**BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia**  
Kultura Saila  
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**  
Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa

**anboto** komunikabideak  
Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta (Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa: 94 623 25 23  
Publizitatea: 94 621 79 02  
publi@anboto.org  
2012ko martxoaren 23a  
10. urtea - 452 zk.

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Ekaitz Goienetxea.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako, Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes.



@anbotokirola

# KIROLAK >

## Asperen eta Asegarceren laguntza handiagoa gura dute pilota eskolek

Bizkaiko pilotaren egoera aztertzeke egindako forotik irtendako eskakizunetako bat da



## Abadiñoako hiru taldeek mailaz igotzea lortu dute xake ligan

Amaitu da klubaren arteko xake txapelketa. Abadiñoako talde nagusia euskal ligara bueltatu da datorren urtean, igotzea lortu baitu. Aurretik ere ondo ezagutzen du liga hori. Abadiño B eta Abadiño C ere igo dira, eta klubaren denboraldi gogoangarria borobildu.

Elorrioko Zaldi Baltzaren talde nagusiak, berriz, Maila gorenari eutsi dio denboraldi oso on baten ondoren. Larriago ibili da Larrasoloeta maila bat beherago; justu-justu eutsi dio mailari. Klub bi hauetako bigarren taldeak, aldiz, jaitsei egin dira. ■ J.D.

## San Prudentzio txapelketa abian nobedadeekin

Aurten seigarren aldia egingo du San Prudentzio Pilota Txapelketa. Guztira 130 pilotarik parte hartuko dute eta, nobedade moduan, gazte eta nagusien mailetak pilotariak lehiatuko dira lau t'erdikoan. Kadete eta 22 urtez azpikoek bina-jokatuko dute.

Joan zen asteburuan hasi zuten txapelketa eta asteburu hiru jardunaldi edukiko dituzte: barikuetan 20:15ean, eta, zapatuetan eta domeketan 16:30ean (asteburuko partidak 'Agenda' atalean).

Finalak maiatzaren 1ean Traña-Matienan, eta 19an eta 20an Zelaietakoan. ■ J.D.

**B**izkaiko pilotaren gaurko egoera aztertu, ondorioak atera eta etorkizuneko lan ildoak proposatzeko foroa egin du oraintsu Federazioak. Bizkaiko 40 pilota eskola (Durangaldeko asko tartean), epaileak, teknikariak, kazetariak eta hainbat modalitateko pilotariak batu ziren, besteak beste. Foroan oinarrituta, txostenean jaso duten eskakizunetako bat enpresa profesionalentzako da: "Pilotarien hezkuntzaren truke klubei zein federazioari ordaintzea eskatzen zaie Aspe, Asegarce eta Innepala enpresei".

Txostenaren arabera, "irizpide ekonomikoak kirol arlokoen gainetik daude gaur egun eta enpresek federazioarekiko eta klubekiko duten konpromisoa hutsaren hurrengoa da". Horregatik, pilotari gazteak heztearen ordaintzea eskatzeaz gainera, beharrezko ikusten dute pilotari baten aurrefitxaketa negoziatzen denean klubari ekarpen ekonomikoa egitea.

Beste mota bateko laguntzak ere proposatzen dituzte. Horrela, Miribillako pilotalekuan jaialdi bat antolatzea eskatu

### Miribillan profesionalen arteko lehia benefikoa antolatzea eskatu dute

dute, Bizkaiko klubaren alde, goi mailako pilotariarekin (Olaizola Irujo...). Horregaz batera, "pilotari profesionalen eta klubaren arteko hartu-emanen sustatu egin beharko litzakete".

Era berean, beste ondorioetako batek dioenez, "federazioak pilotariaren gainean erabakitzeke

ahalmena izan behar luke eta enpresak federazioen azpitik egon behar liriteke". Jaurlaritzari arlo hori lege bidez erregulatzeko eskatu diote.

Enpresen jardunbidearen inguruan jasotako azken ondorioa, galdera batez formulatu dute: "Gipuzkoan (Amezketan eta Tolosan) kadete eta gazteentzako teknifikazio zentroak badituzte, zergatik ez Bizkaian?".

Bizkaiko Pilota Federaziotik jakinarazi dutenez, txostena asteon bidali diete hiru enpresa nagusiei. ■ J.Derteano

### Txosteneko beste lau ondorio

#### 1 Munduko Pilota Biltzarra "ez da behar"

Pilota Euskal Herriatik kanpora sustatzeko helburuz sortu zen, besteak beste, Munduko Pilota Biltzarra 2006an. Txostenean jaso dutenez, Biltzarra "ez da beharrezkoa eta ez du zentzurik". Diotenez, Euskadiko Pilota Federazioak pilotaren gaineko ahalmen osoa izan behar luke eta orain Biltzarrerara zuzendutako laguntzak "pilotaren promoziora bideratu behar liriteke". "Une honetan, beharrezkoa da pilota gure artean indartzea". Biltzarreraren jarraipena eskatu zuenik ere izan zen foroan.

#### 2 Ikastetxeetan pilota sustatu behar litzateke

Esku pilota "hezkuntza zentroen programetan sartu" beharko litzateke, txostenean jaso dutenez. Horregaz batera, "gaztetxoaren erakartze kanpainak" eta horietan "pilotari profesionalen ere" parte hartzea proposatu dute.

Federaziotik aurreratu dutenez, dagoeneko ari dira ikastetxeei begirako proposamen bat lantzen Aldundiaren, udaletxeen eta hiru aldean artean aurrera eramateko. Ez dute gehiagorik aurreratu oraindino, proiektua lantzen ari direlako.

#### 3 Federazioaren txapelketak, pribatuen aurretik

Pilota federatuari dagokionez, Bizkaiko Pilota Federazioak antolatutako txapelketak "pribatuen gainetik" ipintzeko eskatu dute, eta, horretarako, torneo pribatuak eta federatuak noiz eta zelan antolatu adostu beharko litzatekeela.

Pilotariaren garapen maila zehazteko, adierazi dute komenigarriak direla klubetako entrenatzaileen eta federazioko delegatuen eta teknikariaren arteko aldizkako batzarrek.

Pilota emakumeen artean sustatzeko ekimenen beharra ere jaso dute.

#### 4 Trinketea, frontenisa eta zesta indartu

Zestari dagokionez, Bizkaiko zein Euskadiko torneoen "hainbat gabezia" ikusi dituzte. Esaterako, bidaierako eta materialerako laguntza handiagoa behar da. Frontenisari dagokionez, "federazio propio bat" izan behar duela jaso dute txostenean.

Trinketea "goraldian" dagoela uste dute eta "indartu beharra" dagoela.

Ikastetxeetan erakartze kanpainen beharra dagoela jaso dute, aipatutako hiru modalitateetan eta pilotari profesionalen parte-hartzeaz.

## Bidezabal Sariak banatuko dituzte bihar lehen aldiz

Bidezabal atletismo klubak Bidezabal Sariak 2011 sari banaketa egingo du lehenengoz Durangoko Gran Hotel-en. Atletik, entrenatzaileek era klubek bazkideek osatu dute epaimahaia. Honako hauek dira sarituek: David Garcia eta Iraia Garcia atletik onenen atalean; Arantza Moreno 19 urtez azpikoan eta Nora narbaiza kadete mailan.

Bestalde, atletik dominak batzen dihardute. Beteranoetan Begoña Martinezek eta gazteetan Leire Santamariak eta Irati Sarriguartek, esaterako, dominak lortu dituzte. ■ J.D.



# Euskadiko txapelketa Durangon erabakiko da

Mugarra martxoaren 31rako antolatuko duen VI. Duatloian distantzia laburreko Euskadiko txapelketa ere jokatuko dute



Gaizka Uriarte, Gurutze Frades eta Iker Arana duatloiko aurkezpen ekitaldian.

Gorka Uribeetxebarriaren oroimenez, Durangoko VI. Duatloia antolatu du Mugarra Triatloi taldeak martxoaren 31rako. Lehiaketaren harira hainbat ekitaldi eratu dituzte duatloia ezagutara eman eta jaia herri osora zabaltzeko.

Aurten, lehenengoz, distantzia laburreko Euskadiko txapelketa ere duatloian erabakiko da. Emakumeen artean Gurutze Frades da irabazteko faboritoetako bat: "Gogoz nago. Irabaztea asko izan daiteke, baina etxean lasterketa on bat egi- tea gustatuko litzaidake".

Oraingoz, 160 lagunek eman dute duatloirako izena

(triatloi.org). laz sasoi berean baino kopuru txikiagoa da, baina aurtengo duatloian denetan nabaritu den joera dela azaldu dute.

Lasterketa 16:00etan abiatuko da Ezkurdin eta parte-hartzaileek 15 kilometro egin beharko dituzte korrika (bi tartetan banatuta) eta 40 bizikletaz. Goizean zehar Mugarra triatloi eskolako gaztetxoek erakustaldia eskainiko dituzte. Horrez gainera, triatloiko materialen standak egokituko dituzte eta Bkool bizikleta estatikoa probatzeko aukera eskainiko dute. Bizikleta horren bidez, duatloia birtualki egiteko aukera dago, datu guztiak programatuta baititu. ■ J.D.

## EGITARUA

- 08:00 Ezkurdin itxiko dute
- 11:30 Mugarra triatloi eskolako erakustaldia
- 12:00 Labeldun pintxoak salgai eta kirol materialen merkatua
- 13:30 Box-en irekiera
- 15:30 Box-en itxiera
- 16:00 Duatloia hasiera
- 16:30 Bkool bizikleta probatzeko aukera
- 19:00 Sari banaketa

• Duatloia hasi aurretik minutu bateko isilunea gordeko dute Gorka Uribeetxebarriaren eta Durangoko bonbardaketan hildakoen omenez

# Tabirakok 40 urteko laguntza eskertu dio Cafes Baqueri

Kafe enpresak kirol arloari eskainitako laguntza goraiatu dute

Cafes Baque enpresaren eta Tabirakoren arteko hartumana hasi zenetik 40 urte joan direnean, urte hauetan guztietan eskainitako laguntza eskertzeko ekitaldia egin zuen eguaztenean

saskibaloi klubak, San Agustin kulturgunean. Felix Arkarazo eta Gurutze Beitiak gidatutako ekitaldian, politikariak, kirolariak eta beste hainbat arlotako ordezkariak ere egon ziren.

Musika eta dantza ikuskizunen artean, kafe enpresaren historia erreparatu zuten, eta baita Baque Fundazioak gazteen kirola sustatzeko urte askotan egingo dako lana ere. ■ J.D.



Politikariak, Cafes Baqueko ordezkariak eta beste hainbat eragile batu ziren. Kepa Aginako

## ADITUAREN TXOKOA

Iker Saenz de la Cuesta  
Areto futbol entrenatzailea



## Espainiako Kopa Logroñon

Normalean Lehen mailako areto futbola ikustea gustoko dugunok telebistan ikustearekin edo Iruñara Xota ikustera joatearekin konformatu behar dugu, baina joan zen asteburuan gertu izan genuen Lehen mailako txapelketa, eta euskaldun askok aprobetxatu genuen munduko talde onak zuzenean lehiatzen ikusteko.

Ostegunean eta ostiralean lehen partidua jokatu ziren. Euskal Herritik joandakook Irurtzango Xota (Triman Navarra) aurrera egiten ikustea espero genuen, baina aurtan ez dabilta fin eta galdu egin zuten Talaveraren aurka. Beste partiduetan ez zen sorpresarik egon: Autos Lobelle-Talavera eta Barcelona-Inter Movistar izan ziren finalerdietako lehiak. Autos Lobelle galziarrak, zaleen babesarekin, erraz lortu zuten finalerako txartela, eta Barcelonak kostata menderatu zuen Inter Movistar, agian txapelketako partidurik onenean.

Gauzak horrela, igandean finala jokatzeke aurre izan ziren alde batetik Barcelonako izarrak, faborito nagusiak, eta Lobelleren kemena eta adorea bestetik. Baina, kirolean azken urteotan askotan gertatzen den bezala, adorea ezin izan zuen menperatu diruarekin egingako talde indartsua, eta Barcelonak lortu zuen garaipena.

Txapelketa honek taldeek zaleen alaitasunaz gozatzeko, jokalaritza trebeak eta antolakuntzak kontratatutako perkusio banda ikusteko, eta Logroño hiria gehiago ezagutzeko aukera eman digu. Pertsonalki, gustora bueltatu naiz han bizi izandakoarekin.

## Aitor Astorkia lider ipini da Euskadiko duatloia zirkuituan

Euskadi-Nafarroa Duatloia Zirkuituko egutegia osatzen duten hamalau duatloietatik sei jokatu direnean, Garaiko Triatloi Taldeko Aitor Astorkia da liderra. Erregularitasuna izan du bidelagunik onena orain arte lehiatu diren lasterketetan. Basaurin eta Sopelan 9. eta 10. sailkatu zen, hurrenez hurren, eta puntu sorta baliotsua batu zuen horrela. Mungian eta Eibarren ere lehenengo hogeien artean helmugaratu zen (15. eta 19.), eta okerraren ibili zen Barakaldo eta Oñatiko duatloietan ere, lehenengo 30 kirolarien artean sarztea lortu zuen.

Erregularitasuna du bidelagun; beti geratu da 30 onenen artean

Emakumeen arteko lehiaren berriz, Mugarra taldeko Irene Loizate 10. postuan dago kokatuta. Kadete eta Gazte mailetan ere eskualdeko hainbat duatloilari dabilta nabarmenduta: Amaia Eguren, Gorka Intxausti, Unai Arbulu, Igor Mendiagarai eta Gaizka Arizmendiarieta. ■ J.D.

## Agenda

PILOTA  
SAN PRUDENTZIO  
TXAPELKETA

Lau t'erdian:

- Sedano / Txurruka
- Mendinueta / Azpiri
- Albelitia / Andueza
- Aurtenetxe / Larrañaga

Barikuan, 20:15ean, Traña-Matienako frontoian

- Garcia / Goñi
- Perez / Mendia
- Pradera / Gallastegi
- Legarra / Urkizu

Zapatuan, 16:30ean

- Urretxu / Fullaondo
- Pujana / Leonet
- Albizu / Garcia
- Ruiz / Rico
- Muguruza / Aldape

Domekan, 16:30ean

FUTBOLA  
HIRUGARREN MAILA  
Kulturala - Leloa

Domekan, 17:00etan, Tabiran

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Santurtzi

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko - Ibarra

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko udal kiroldegian

Mallabia Hierros Serv. -

Zarautz

Domekan, 17:45ean,

Zaldibarko udal kiroldegian

SASKIBALOIA

JAITSIERA FASEA

Tabirako Baque -

Araberri

Zapatuan, 18:00etan,

Landako kiroldegian





# Club Hípico

## Dukiena-BERRIZ



### • INSTALAZIOAK:

- 10 hektarea dituen lursailean kokatua.
- 70x40 m-tako hare pista, 40x20 m-tako zaldi-heztegia, 25 box, sokadun pista, korta eta dutxak.
- Errekatxo eta zuhaitzi batez inguratutako landa apartak zaldien eta poney-en atsedenaldirako.

### • FORMAKUNTZA:

- Eskola-kirolak, udako ikastaroak eta hizkuntzak.
- Galopa titulaziorako prestakuntza, 1etik 7ra, zaldizkoentzako.
- 1. eta 2. mailako Zaldiketa Teknikorako sarrera probarako eta titulaziorako prestakuntza.

### • AHOLKULARITZA:

- Zaldiak erosteko eta balioztatzerako aholkularitza juridikoa.

### • JARDUERAK:

- Zaldiketa praktikatzeko aukera, hastapenetatik, klubak dituen zaldi eta poniekin, goreneko mailara arte, norberaren zaldiarekin.
- Itzuliak, jolasak, jinkanak eta lehiaketak, nagusi eta umeentzako.
- Oztopo-lasterketa, doma eta raid-a dira gure zalditegiaren kirol berezitasunak.

### ORDUTEGIAK:

Egunero 09:00etatik 20:00etara, astelehenetan izan ezik.

### TARIFAK:

- Eskolako zaldiekin:
- Ordubete pertsonako: 25 euro / Taldeka: 20 euro
- Norberaren zaldiarekin:
- Hilean 100 euro / klase solteak: 15 euro
- Pupilajeak: 300 euro oinarrizkoa.

### BONO BEREZIAK:

Hilean 65 euro (astean klase bat, gainontzekoak 15 euro) Hamar klase: 135 euro.

Eitua auzoa, z/g - Dukiena baserria - Berriz - Tel.: 638 12 70 60 - 652 74 58 32 - dukiena@gmail.com



zatoz eta gustora informatuko zaitugu!

[www.dukiena.com](http://www.dukiena.com)



# AISIALDIA

auzorik auzo



## Anbotoren magalean, natura bere osoan gozatzeko aukera eskaintzen du Arrazolak

Baserriek, larre berdeek, abereek, errotek eta txangozaleek osatzen dute Arrazolako bailarako paisaia, benetan gomendagarria

Naturaz eta lasaitasunaz gozatzeko paisaia paregabea eskaintzen du Arrazolako bailarak

Anbotora zein Besaidera igotzeko mendi bideak Topetik eta Arrazolatik abiatzen dira

**A**patan hasi eta Arrazolako Topera doan bidegorritik paseatzea gero eta jende gehiagoren plana da, batez ere, udaberrian sartu berri garen honetan, eguzkia bere epela bailara osora zabaltzen hasten denean. Lasaitasuna bidelagun, Arrazola ingurua naturagaz kontaktuan egoteko eta arazoak ahazteko toki aproposa da.

Saso batean Anbotoko magal horretan bestelako burrundada barreiatzen zen. Nork esango luke gaur egungo bidegorria aintzinako trenbide baten gainean eraikita dagoela. Kobrez eta harrinabarrez beteta joaten ziren trenak, Arrazolako meategietan geldialdia egin ondoren. Gaur egun, XVIII., XIX. eta XX. mendeetako ustiapen horren testigu bakarrak bidegorriaren aldemenean ikusgai dauden bagoiak dira.

Elizak, Erlaunpe elkarrekin, frontoi labur eraberrituak eta baserri eder batzuek osatzen duten erdiguneak xarma berezia du. Gorune hartatik Arrazola ia osoko panoramikaz gozatu daiteke: bailara berdeak partzeletan banatuta, baserriak han-hemenka barreiatuta, fruta arbolak mendi hegalean, pinadi batzuk tarteka eta artaldeak nonahi.

Merezi du Arrazolako elizan geldialdia egiteak. Gaurko eliza San Migel Goiaingearuari eskainita dago, 1510ean parrokia egin zutena. Herri arkitekturari dagokionez, kontuan hartzekoa da 1519ko Ollargan baserria, Bizkaiko baserri zaharrena delako. Makatzetara heldu aurretik eskuinera hartuta aurkitu ahal da Ollargan. Atxondo haranean erroten garapena garantzitsua

izan da betidanik. esaterako, Arrazolako Ibarra errota ondo kontserbatu da denboran zehar eta orandik ere badabil.

Mendizaleak ere sarritan ikusten dira Arrazolan. Elizatik gora joanda, Anbotora igotzeko bidexka bat dago. Topetik gora egin da, berriz, Besaidera helduko da mendizalea. Handik Udalatxerantz, Anbotorantz edota Elorriorantz joan daiteke.







# ZILARRASTEAREN 012

## durangoko bonbardaketaren 75. urteurrena

- M20tik A01era: M31 (IN MEMORIAM) IKUS-ENTZUNEZKO INSTALAZIOA.**  
**Txelu Angoitiaren** irudi eta soinu instalazioa **Santa Susanan**.  
 astelehenerdik-barikua 18:30-20:30 // zapatu eta domeketan 12:00-14:00 eta 18:30-20:30
- M24. LITERATURA ESKOLA: Iñigo Aranbarri.**  
**Bonbardaketak literaturan. "Hasi Durangon eta Hiroshiman gora".**  
 10:00an. Udal Liburutegian.
- M24. KANTULAGUN. Gerrari buruzko kantak.**  
 13:30an. **Santa Ana** plazatik hasita, kalez-kale.
- M27. AURKEZPENA eta DOKUMENTALA.**  
 Jon Irazabalen **"Guda Zibila Durangaldean 1936-37"** liburuaren eta **"Durangoko bonbardaketa"** dokumentalaren aurkezpena. 19:00an **Santa Susanan**.
- M28. 1937 GAUR.** Diziplina anitzeko abangoardia ikuskizuna.  
 G. Garaizabal; P. Magdalena; P. Rekalde; E. Aiartzagüena; P. Salaberria  
 20:00an, **Plateruenean**. Sarrera: 5€.
- M30. LURRA ASTINDUZ** antzezlan. **Karrika Antzerki taldea**.  
 20:00an, **San Agustin Kulturgunean**. Sarrera: 5€
- M31. BONBARDAKETAREN IBILALDI KULTURALA.** 18:15ean, Kurutzia gatik hasita.  
 Musika, antzerkia, dantza, ikus-entzunezkoak... 20:00an **OROIMEN EKITALDIA** Andra Marian.
- A01. LURRA ASTINDUZ** antzezlan. **Karrika Antzerki taldea**.  
 19:00an, **San Agustin Kulturgunean**. Sarrera: 5€



# anboto.iragarkilaburrak.com

- 1 HIGIEZINAK
- 2 TEKNOLOGIA
- 3 LANA/NEGOZIOAK
- 4 DENETARIK
- 5 IBILGAILUAK
- 6 HARREMANAK
- 7 AISIA/KIROLA
- 8 FAMILIA/ETXEA

Saldu / Erosi  
Errentan eman / Errentan hartu  
Lan eskariak / Lan eskaintzak  
Galdu / Aurkitu  
Eman / Hartu

Eguazteneko 17:00ak arte  
jasotako iragarkiak bariku  
horretako alean  
argitaratuko ditugu.  
Beranduago jasotakoak  
hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Erregistratu zaitez, [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgurean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23

**Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.**

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

SALDU

**Abadiño.** 98 m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Muntzaratu auzoan. Tel.: 678-836 050

**Abadiño.** Laubidetan, Matiena. Guztiz berriztatua kalitate handiko altzariek. 3 logela, bainua, egongela balkoiarekin eta sukalde hornitua. Tel.: 615-738 552 edo 688 861 878. Prezio negoziagarria: 246.000 euro.

**Atxondo.** 200 m<sup>2</sup>-ko txalata. Sukaldea, bi egongela, lau logela, hiru bainugela, trastelekua. Altzariz hornitua. Berogailua, zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m<sup>2</sup>-ko terrena. 900.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615-70 12 23.

**Berriz.** 80 m<sup>2</sup>. Oso kokapen ona. Guztiz jantzita. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela. Berogailua zoru irradiatzailea da. Oso eguzkitsua da. Tel.: 607-52 24 26.

**Durango.** 98 m<sup>2</sup>. 3 logela, sukaldea-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m<sup>2</sup> eta 8 m<sup>2</sup>-koak). Altzariz betea. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655-70 46 84.

**Elorrio.** 162 m<sup>2</sup>-ko terraza duen atikoa (73 m<sup>2</sup>). 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. 615-75 59 85 (goizez) 636-22 49 02 (arratsalde).

**Elorrio.** 75 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 bainugela eta 8 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. Sukalde ekipatua, 2 armairu horman sartuak eta igogailua. 230.000 euro. Garajea aukeran. 634 45 72 01

**Gasteiz.** 57 m<sup>2</sup>. Kalefakzioa eta ura elektrikoak. Igogailua. 2 logela, 2 komun, sukalde ekipatua, balkoia. Banakako garajea. Pizina eta belardia urbanizazioan. Altzariek. Tel.: 665 75 78 07.

**Iurreta.** Pisu bat salgai arriandun. 78.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

**Otxandio.** Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. 675-71 72 83.

**Otxandio.** 90 m<sup>2</sup>. Oso eguzkitsua, 4 logela, egongela, sukaldea, komun eta balkoia. Berritua. 150.000 euro. Tel.: 675 90 52 27

EROSI

**Durungaldea.** Baserri bifamiliar osoa erreformatzen ditzuten, baserri erdiaren truke. Tel.: 618-93 62 14.

ERRENTAN EMAN

**Elorrio.** Apartamentua herri erdian. Sukalde-egongela, logela, bainugela. Altzariz hornitua, gas-berogailua. Tel.: 94 682 04 38 (deitu gauze).

### ERRENTAN HARTU

**Durungaldea.** Pisu edo apartamentu baten bila nabil. Tel.: 645-00 96 02

**Elorrio.** Alokatzeko pisu bila. Altzariek. 94-658 21 91.

**PISUA KONPARTITU**  
**Durango.** Logela bat alokatzea. Tel.: 630-76 18 28.

**Durango.** Logela bat alokatzen da, Tabira auzoan. Tel.: 645 00 96 02

**Iurreta.** Pisu batetan logela alokagai, neska euskaldun batentzat. 200 euro. Tel.: 633-23 38 48.

### LOKALAK

**Gasteiz.** Azken erabilera: tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariek eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun. Hiri erdiguneko komunikazio onak. Alokatzeko ere posible da: 800euro/hil. Telefonoa: 665757807 (ana)

### GARAJEAK

SALDU

**Berriz.** Itxia. 42 m<sup>2</sup>. Ate automatikoa. Ura eta argia. Komuna eta bodoga txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldeagaz. Tel.: 615-75 21 36.

### EROSI

**Berriz.** Learreta-markinan. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m<sup>2</sup>. Tel.: 663-39 75 88.

**Elorrio.** Itxia, erdialdean, 20.000 euro. 660-45 87 56.

**Otxandio.** Garaje itxia salgai otxandun, pertsiararekin. Tel.: 675-71 72 83.

### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Itxia, Sasikoan. 75 euro. Tel.: 688 80 70 92

**Durango.** Garajea alokairuan. 50 e/hil. 675-71 95 54.

**Durango.** Lurpeko garaje irekia Murueta Torren. Auto ertain batentzako plaza maniobragarria eta trastero itxia. Tel.: 645 72 24 05 (Jon).

### LURSAILAK

**Abadiño.** Lursaila salgai matienan, arzubian, 2.000 m<sup>2</sup>, erreka ondoan eta bide ertzean. Tel.: 658-75 65 12.

**Bernedo.** Lursail erakargarria urturin. Gasteizetik 40km-tara eta izkiko golfetik 3minututara. 308m<sup>2</sup> eraikitzea posible. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk

ditu. Tel.: 665757807 (ana)

### Teknologia

**Bidali zure ordenagailua boliviara.** Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu boliviako bigarren mailako eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

### Lana/negoziak

#### LAN ESKARIAK

##### OSTALARITZA

**Durango.** Neska gaztea, zerbitzari lanak egiteko eskaintzen da, lan-erdi, lan oso edota asteburuetarako, esperientziaduna. 615 716 232

##### ETXETAN LANAK

**Durango.** Bulegoan, etxean, portalen... garbiketarako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astelehenerdik zapatu eguerdira. Esperientzia. Tel.: 676-54 66 91 (Lola).

**Durango.** Durangoko emakume orduka etxeko lanak egiteko prest, informekin. Tel.: 94-466 89 26 edo 688-65 90 90.

